

500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

36

Hezkuntzaren
normalkuntza
gaia

Begoña Martinez
elkarrizketa

Ikastegietan,
zer-nolako liburutegiak
Gehigarria

Idazkera harmonikoak
ekarpena

1999ko MARTXOA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 37.34.03

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
AN^tZA S.A.L.

Azaleko argazkia:

Ikor Kotx
(Zubietako joaldunak)

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.999/II/23

Kopurua: 3.500 ale

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

Hezkuntzaren normalkuntza

Xabier Isasi

17 **elkarrizketa**

Begoña Martinez

23 **gehigarria**

Ikastegietan, zer-nolako liburutegiak?

Joana Albret bibliotekonomia mintegia

29 **Iparraldea**

**Ziburuko antxetaren hegalkadak
zabalduz**

31 **Berriak**

35 **Ekarpena**

Idazkera harmonikoak ahalbidetzen

Irune Ibarra

39 **Praktikatzen**

Gorputza eta bitartekariak musikan

Ana Etxeberria

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke

hik hasik ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

EAEko aurrematrikulazio kanpaina edo A ereduaren gora-beherak plazaratzea mehatxu bilakatu zenekoa

MARTXOA

e d i t o

r i a l a

O

tsaila: Aurrematrikulazio kanpaina EAEn. Urtetik urtera korapilatsuagoa bihurtzen ari den hilabetea.

Ikastetxeen atek zabaltzen diren garai honetan, hedabideetatik batzuen eta besteen eskaintza eta gonbitak iristen zaizkigu, zuzeneko publikitate erakusketa txukunenean.

Guztiaren gainera aurtengoa bereziki zalapartatsua gertatu da. EKB eta euskalgintzako beste esparruetatik euskal ereduaren aldeko kanpaina zabaldu da. EHEk mezu hau areago eramanez A ereduaren aurkako kanpaina jarri du abian, eredu hau eskaintzen duten ikastetxeetako zuzendariari eskutitzak igorri, A ereduaren legez kanpokotasuna azalduz eta analfabetoak sortzen dituela argudiatuz gainera. Erantzuna berehalakoa izan da.

Mehatxatu egin omen dituzte. Galde biezaietela Ermitagainako haurrei, Baigorrikoei, Tuterakoei... Euskaldunok ondo daki-gu jakin mehatxuen gauzatzeaz!

Norberak nahi duen lekuan nahi duena irakur lezake eta ez gara gu ez, eskubide hau ukatuko dugunak. Behingoz azalderiak utzi eta gaiari heltzeko aldarrikapena luzatu nahi dugu.

Goazen mamira: duela 17 urte ereduaren politika ezarri zenean, uneko egoerari erantzunez egin zen. Orduetik hona euskalduntzean lehenengo eta hizkuntz normalkuntzan ondoren ahalegin handiak egin dira:

euskal mundutik eta gizartetik presioa eginenez eta Instituzioetatik dirutza handia ipiniz besteak beste. Eta honek bere emaitzak eman ditu, inkestek eta azterketek hala diote. Esperientziak eta azterketek erakutsi dute A ereduak ez duela euskalduntzen. Eta hauek datu objektiboak dira, kontuan hartu beharrekokoak nahitaez.

Hezkuntzak bi ezaugarri beharko lituzke: ausardia eta malgutasuna. Malgutasuna gizartearen aldaketek jabetzeko, antolaketa eta erabaki zaharkituak baztertu eta egoera berriei hobeto egokituko zaizkion planteamenduak onartzeko. Ausardia, erronka eta beharrianei erantzuteko bide berriak urratuz.

Aurki esku artean izango ditugu aurrematrikulazio datuak. Norberak nahi edo behar duen irakurketa egingo du. Guk zera proposatzen dugu: joka dezagun malgutasun eta ausardiaz eta hel diezaiozun mamiari.

Euskal ereduaren aldeko aukeraketaren etengabeko gorakadak eta esparru desberdinetan egiten ari diren hizkuntz normalkuntza plangintzek hala eskatzen dutelako hizkuntz ereduaren politikaren berrantolaketa beharrezkoa da.

Bestalde, sareen arteko aukerak -Pribatua, Publikoa eta Ikastola- duen orekak herri honen beharrak asebeteko dituen Euskal Eskola eraikitzeko zorretan jarraitzen dugula bergogorutzen digu.

Ba ote da zure herriko, edo behintzat bizi zaren herriko, hizkuntza ez ezagutzea baino gauza tristeagorik?

Eta hau ez da mehatxua.

*Malgutasuna
eta ausardia
Hezkuntza
bizi eta
osasuntsuaren
adierazle*



Kanpainek eta kontrakanpainek gero eta leku handiagoa dute

k r o n



Euskararen aldeko bi kanpaina kritikapean

Kontseiluak abian duen kanpainak kritikak jaso ditu CCOO sindikatuaren aldetik. Kanpainaren mekanikarekin ados ez daudela adierazi dute, parte hartzen ez duten funtzionarioen datuak zabaltzeko arriskua dagoela argudiatuz. Pribatutasuna ez dela bermatzen diote eta diru emaileak indibidualki eta pribatuan eman beharko luketela diru hori.

Kontseiluak ohar baten bidez adierazi duenez, kanpainan erabiltzen ari den formula beste hainbat alditan erabilitako bera da -Mitch hurakanak kaltetuen alde, esaterako-. Gainera, CCOO sindikatuak parte hartze zuzena izan du ekimen

honen sorreran eta garapenean, eta oraindik orain ez dio kexurik adierazi Kontseiluari. Pribatutasuna guztiz bermaturik dagoela azpimarratu dute kontseiluko kideek, Eusko Jaurlaritzak halaxe adierazi dielarik. Izatekotan, lanorduren ekin-tzan parte hartzen dutenek izango lukete beren pribatutasuna zainduko den kezkatzeko arrazoirik, ez eta, CCOOek dioen bezala, parte hartzen ez dutenek.

Kontseiluaren ustetan "sortu den polemikak beste motibazio batzuk ditu. Euskararen politizazioa gairitu nahian gabiltzala guztiok diogunean, azpimarratu nahi dugu horrelako gatazka artifizialak sortzek inori onik ez diola egiten, eta euskararen normalizaziorako direla kaltegarriak".

Baina ez da kanpaina hau izan kritikak jaso dituen bakarra. EHEen A ereduaren aurkako kanpainak ere erreakzioak sortu ditu. Besteak beste, A eredua eskaintzen duten ikastetxeetako zuzendarietara gutunak bidali zitzaizkien, eta UGT, PP zein Hezkuntza Sailak hori kritikatu dute. Lehenengo bien ustetan gutun horiek mehatxuak dira eta Hezkuntza Sailak, aldiz, ekimen hau bertan behera uzteko eskatu dio EHEi. HBak, berriz, kanpaina defendatu egin du koherentea dela esanez eta egin den interpretazioa okerra izan dela. EHEk kanpainaren balorazio positiboa egin du. Euskaldunok koldarkeria eta konplexuak alde batera utzita nahi duguna eskatu behar dugula azpimarratu du.

Destinu-osagarrien auzia

Destinu-osagarriak EAEko unibertsitatez kanpoko sare publikoko irakasle guztiei ordaintzea erabaki du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Irakaskuntzako sindikatuarekin bildu zen eta Alfontso Unzeta Hezkuntza sailburuordeak destinu-osagarriak ordaintzeko baldintzen proposamena luzatu zien: ordaintzeko kopuruak, epeak eta ikasle guztiei hedatzeko baldintzak. Dena dela, EAEko Auzitegi Nagusiak orain arte adierazi duen doktrina berresten duen beste sententzia bat kaleratu behar du, eta hori egin arte itxarongo duela adierazi zuen.

Sindikatuak ongi ikusi zuten proposamena, nahiz eta ez duten uste beste sententzia bat behar denik erabakia berresteko.

20.000 irakasle inguruk jasoko dituzte destinu-osagarriak lau epetan. Lehenengo ordainketa 1999ko aurrekontuen legea onartu eta hiru hilabetera egingo da, eta gainontzekoak datozen urteetako urtarrelean.

“Historia ez da data, izen eta pasadizo bilduma bat, gure izate kolektiboaren parte garrantzitsu bat osatzen duen zerbait baizik. Horrexegatik usurpatzen jarraitu nahi dute” (Alizia STÜRTZE)

ik a

Gela elebidunak ugaritzen ari dira Iparraldean

Iparraldeko eskola elebidunetan hainbat eskari kaleratu dira azkenaldian. Alde batetik, Ikas Bi guraso elkarteak euskarazko irakaskuntza sendotu nahi du eskola publikoan. Klase elebidunak lortzeaz gain, euskaraz eskola osora zabaldu nahi dute. Frantses administrazioari murgiltze sistema ezartzeko galdegin diote euskaraz ez dakiten gurasoek, esperientzia interesgarria iruditzen baitzaie.

Gurasoek ezezik irakasleek ere eskariak egiten dituzte. Lan baldintzak direla eta, Jean Espilondo diputatuarengan jo dute. Gehiengo ebentual modura dabil, lan baldintza kaxkarretan eta euskarako irakasleak izan arren tituludunak izateko igaro behar duten lehiaketa frantsez egin behar dute.

Bestetik, albiste onak ere badaude. Datorren ikasturtean gela elebidun gehiago irekiko direla, alegia. Pierre Polivka Akademiako ikuskaria eskoletako profesional eta gurasoen batzordeekin bildu zen datorren urteko lehentasunak proposatzeko. Horrela, barnealdeko eta ZEP lehentasunezko hezkuntza eremuen sareak indartzeko asmoaren berri eman zuen, eta baita tokiko hizkuntzen irakaskuntza garatzeko ere.

Aurreikuspenak eginez, Iparraldean hamar postu desagertuko dira eta beste lau postu berri ireki gela elebidunetan. Bi urtetan 14 gela elebidun ireki dira eta datorren urtean zortzi gela berri irekiko dira.



Haur-Eskolaren gaia eztabaidan Gasteizen eta Nafarroan

Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeak Haur Eskolen egoera erregulatzeko eskatu dio Gasteizko gobernuari. Parlamentuan aztertu da gaia, eta printzipioz alderdi guztiak ados agertu dira Haur Eskolen finantzaketa eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola mapa aztertzeko.

Koordinadorak adierazi duenez, urteak daramatzate Gobernuarekin eten gabeko harremanetan haur txiki-kientzako egokia den eskola eredua sortzen, irakasleen formazioa bideratzen, curriculum egokiak lantzen eta 0-3 ziklorako finantzazioa aldarrika-

tzen. Printzipioz guztiak ziklo honen erregulazioaren alde daude, baina orain arte ez omen da aurrerapausorik eman. Parlamentuko eztabaidaren ondoren ea gauzak egiten hasten diren.

Nafarroan ere 0-3 zikloa erregulatu gabe dago, eta gauzak mugitzen hasi dira. Iruñeko parlamentuan IUk aurkeztutako mozio bat eztabaidatu dute. Bertan lau eskaera egiten zaizkio gobernuari: Haur Hezkuntzako lehen zikloa erregulatzeko, eskaintza publikoa egitea, ezarpen plan bat egitea eta bitartean bi urteko haurrak matrikulatzeko plazak eskaintzea.

Aldi berean, CCOO sindikatuak 1999-2000 ikasturterako bi urteko haurrentzako matrikulak irekitzeko animatu nahi ditu ikastetxe publikoak. Momentuz 3 urtetik aurrerako haurrentzako eskolaratzea eskaini dezakete legalki. CCOOen kanpainak egoera horrekin bukatzeko eta administrazioa ziklo hori erregulatzera bultzatzeko helburua du.

Argi dago, 0-3 zikloa hezkuntza sisteman oraindik arautu gabe eta zintzilik dagoen gaia da Nafarroan eta EAEn.

GAIA

Hezkuntzaren


Xabier Garagorrik, Lore Erriondok eta Nik neuk idatzitako Hezkuntzaren Normalkuntza liburuari buruz idatziko dut, jakina, irakurleak liburuaren edukiaren isla eta edukiaren pasarte batzuk aurkituko ditu artikulu honetan. Liburua bost ataletan banatuta dago: Kultura eta Curriculum, Ikasmateriala eta euskal curriculum, Testuliburuaren azterketa, Normalkuntza, zenbait kontzeptu eta Hizkuntza-prestasuna. Lexikometria. Horiekin batera,

eranskin gisa, Prestasun hiztegiak agertzen dira. Ikusten denez, liburuaren edukia oso zabala da: kultura, curriculum, ikasmateriala, testuliburuak, normalkuntza, hizkuntza... Horrelako batek, soilik, egindako halako hamar idazteko ematen du. Hezkuntzaren munduan ikuspegi orokorrari garrantzia eman diogu. Gaur egun, besteak beste, kezka diren alderdiak landu nahi izan ditugu.



normalkuntza

Hezkuntza, kultura, curriculum, normalkuntza



Xabier ISASI
EHUko irakaslea

Aldaketa garaia omen da, edo hobeto esanda, aldaketa da nagusi gure garaio-tan. Eskola munduan aldaketak etengabe egokitzapena ezinbestekoa dela adierazten du. Euskal Herrian aldaketa sakonak bizi izan ditugu azken urteotan. Bi alderdi nagusi aipatuko nituzke bereziki; bat, gizarte mailakoa, gizarte industrializatua izatetik zerbitzu gizartea izatera pasa gara, eta bi, euskararen normalkuntza prozesua. Biek daukate eragin zuzena hezkuntzan. Aurrena, zerbitzu gizartearekiko egokitzapena, erreformaren bitartez eta hezkuntza sistemen aldaketekin gauzatzen da neurri batean. Bigarrena, oster, euskararen normalkuntza, aurrekoarekin gainjartzen da. Hau da, euskararen normalkuntza prozesuak Euskal Herriko hezkuntza sistemen egokitzapenaren beharra dakar.

Horregatik Hezkuntzaren Normalkuntza jarri diogu izenburu liburuari. Euskal curriculum delakoak hezkuntzan egiturazko aldaketak eskatzen ditu. Hizkuntzan -hizkuntza eredu-

edukietan eta curricularen egokitzapenetan aldaketak ezinbestekoak dira. Dagoeneko, aski frogatuta dago hizkuntza ereduak (A, B, D eta G -Nafarroan-) arras desberdinak direla. Horrek ikasleen artean diferentzia eta ezberdintasunak dakartza, seguru asko hizkuntzen ezagutzatik harantzago doazenak. Ez da huskeria hizkuntza eredu desberdinen eraginkortasuna eta kalitateari buruzko eztabaida. Batzuetan, horrelako ezbaietan, euskararen aldeko edo kontrako arrazoi ideologikoak egon daitezke, baina ez dugu pentsatu behar arazo linguistikoa dela soilki. Hizkuntz ereduak egoera normalizatu artean behin-behineko irtenbide gisa sortu ziren, iraunarazteko joerak ez du normalkuntza prozesuan laguntzen.

A eredu desagerarazi, B ahalik eta lasterren baztertu eta D eredurik egokiena aldarrikatzeak, orain egiten den moduan behintzat, hizkuntza ereduaren diseinua onestea dakar. Gure ustez aurrera urratsa egiteko garaia iritsi da. Hizkuntza ereduaren egiturak, hizkuntza askatasunaren aitzakian, oro har, hezkuntza zatikatzeaz gainera, irakasle eta ikasleen arteko bereizketa antzuak dakartza, zaildu egiten du berrikuntzen hedapena eta, azken buru, du berariazko ereduaren sorrera eta garapen eragozten. Auzia ez da hizkuntza eredu jakina bestearen gainetik hobestea. Erabaki beharrek da Euskal Herriko hezkuntzaren egituraketa eta garapenerako hizkuntza ereduaren proposamena egokia ote den eta bere orde, zein proposamen izan ote daitekeen.

Eztabaida linguistikoa hutsa baino askoz sakonagoa da. Izan ere, D ereduaren aldeko aukera ez da izaten, soilik, eredu-

rik euskaldunena delako, orokorrean besteak baino hobea delako baizik. Beste era batera esanda, eredu euskalduna hobea bada, euskaraz izateaz gainera, beste berezitasun erakargarriak dituelako da. Ikasmateriala izan, irakasleria izan, gurasoen esku hartzea izan, motibazioa izan edo harreman bereziak izan.

Esanak esan, Hezkuntza Normalkuntza liburuan irakurleak gogoetarako elementu ugari aurkituko ditu. Ez aurreko pasarteetan plazaraturiko eran, modu orokorrago eta zabalagoan baizik, teoriokoago esango luke baten batek. Ez da aztertzen gaurko euskal hezkuntzaren egoera, problema jakin batzuei heltzen zaie, egileen ustez giltzarri izan daitezkeen problemak. Horietatik abiatuta ainguraketa teoriko zabal batean oinarritzko kontzeptuak argitu eta zehaztu egiten dira. Horrela bada, liburutik bertatik atera ditugu zenbait zati eta jarraian aurkezten dizkizuegu.

Kultura eta curriculum

Curriculum, instituzioen bitartez, gizatalde desberdinek garaian garaiko ezagutza eta ideiak hautatu, antolatu eta transmititzea helburu duen prozesua da (Becchi, 1994). Curriculum, beraz, kultur adierazpenen aukera bezala ulertzen badugu, ikuspegi horrek kulturaren kontzeptua eta osagaiak definitzera garamatza. Ikuspegi honetatik gaur egungo curriculumari, ohiko arloetan edo zientzietan oinarritutako ezagutzaz gainera, gizarte jakin batean bizi den eta biziko den kulturaren isla izatea eskatzen zaio. Horrek honako galdera hauek erantzutea eskatzen du: Nolako gizartean bizi gara? Nolako izan da gure gizartearen bilakaera historikoa? Nola-

koa izatea nahi dugu etorkizunean? Nolako balio eta hastapen etikoei eman nahi zaie lehentasuna? Curriculumaren definizioan, kulturaren iraganeko, oraingo eta etorkizuneko dimentsioak eta etikaren dimentsioak uztartzen dira. Galdera hauen erantzuna garrantzi handikoa da herrialde guztietan, baina bereziki gurea bezalako kultur esparru gutxiagotuetan kokatzen diren herrientzat, izan ere gure kulturaren iraupena eta berrikuntza, neurri handi batean, eskolaren bidez ziurtatzen den oinarriko kultura komun horren baitan baitago.

Ikasmateriala eta euskal curriculum

Euskal curriculumaren gaia ikasmaterialarekin uztartu nahi izan dugu eta zeregin honetan ezinbestekoa iruditu zaigu ikasmaterialaren kontzeptua bera definitzea eta duen garrantzia aztertzea. Ikasmaterialak, curriculum ofizialak gauzatzeko eta garatzeko, eskoletan, irakasleen eta ikasleen eskuetan jartzen diren euskarri ezberdineko materialak edo tresnak dira. Eskola-liburuen garrantzia ikusi ondoren, begiratu bat ematen diogu liburuen euskarazko eskola-liburuen historiari, honen bila-kaera ikus ahal izanik, egungo egoera kokatzeko. Honela, hiru ataletan antolatatu dugu informazioa: Euskarazko lehen argitalpenetik (XVI. mendea) ikastolen mugimendu modernoaren sorrera arte (1960), ikastolen garai modernoaren sorreratik (1960) Elebitasunaren Dekretua (1979) eta Eusko Jaurlearitzak hezkuntzako konpetentziak eskuratu arte (1980) eta Elebitasunaren Dekretutik gaur arte. Ostean, ikasmaterialetan agertzen den berezko euskal curriculumean murgiltzen gara honako irizpide hauei garrantzia eman diegularik: euskal gizartearentzat eduki hori garrantzizkoa izatea, euskalduntasunaren markak bertan definiturik agertzea eta aukeratzen diren edukiak eraginkorrak izatea, gaurko eta aurreikusten den etorkizunerako.

Alde batetik, Lehen Hezkuntzako Hego Euskal Herriko ikastetxe guztietara (sare guztietara) bidalitako galdera-sorta baten bitartez, ikastetxean testuli-

buruen aukeraketa nola eta nork egiten duen eta, garrantzitsuena dena bestalde, testuliburuak aukeratzeko orduan zein irizpide erabiltzen dituzten inguruko erantzunak ekartzen ditugu. Galdera-sorta honen bitartez, Hego Euskal Herriko ikastetxeetan erabili ohi diren testuliburuak zein diren ere jakin nahi izan dugu eta honela galdetu, ikasmaita, jakintza-alor eta hizkuntz ereduaren arabera. Era horretan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako eredu elebidunetako (A, B eta D) ikastetxeetara jo genuen. Ikastetxe guztietara, publiko, pribatu zein ikastola. Gure azterketatik kanpo geratu dira Iparraldekoak eta Nafarroako G ereduak –gaztelania hutsezko irakaskuntza–

Testuliburuaren azterketa

Aurrera jarraituz, testuliburuetan bereziki eta ikasmaterialetan orokorrean, berezko euskal curriculumak islatzen ote den azaltzeko, zein mailatan eta nola agerrarazteko tresna berezia sortu genuen. Ondoren, tresna hori erabiliz, Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko 1. eta 2. mailetak (OHoko 3. eta 4. ikasmaitak) Matematika, Ingurunearen Ezaguera eta Hizkuntza eta Literatura (Euskara eta Gaztelania) jakintza-alorretan, Hego Euskal Herrian erabiltzen diren hiru argitaletxeetako testuliburuak aztertu genituen. Egindako analisiak eta lortutako ondorioak dira, hain zuzen, liburura ekarri ditugunak.

Kultur erreferentziak nola islatzen diren aztertu dugu, honako hauetan agertzen denari erreparaturik: irudiak, argazkiak, mapak, diagramak eta taulak eta hainbat aldagai izango ditugularik kontuan, hala nola: irudien tamaina, pertsonen agerpenaren maiztasuna adin eta sexuaren arabera, jarduerak. Mapen kasuan, espazio geopolitikoa eta garaia-aren erreferentzia hartu ditugu kontuan. Hauez gainera, testuak darabilen hizkuntza ere aztertu dugu tresna honen bitartez honako hauek neurtuz: liburu-ko hitz-kopurua (guztira agertzen direnak eta desberdinak, hiztegi aberastasuna...), orrialde beteenaren azterketa, ondoren liburu osorako estimazioa egin ahal izateko, hizkuntza-egitura ere ager-rraraziz, eta pasarteka, perpaus eta esal-

dika ere azterketa hau burutuz eta amaitzeko, hiztegiaren azterketa. Prozesurari gagozkiolarik, halako behagailu moduko bat antolatu dugu. Hainbat fitxa desberdin eratu ditugu, aipatutako parametroak jasotzeko eta adierazleak zerbakiatar ekartzeko. Beraz, zenbaketa daukagu aurreneko urrats hauen oinarrian.

Hasierako lan hau astuna bada ere, biziki emankorra da. Argitaletxe desberdinetako testuliburuaren arteko aukeraketa egiterakoan, lehenbiziko irizpidea ideologiko, metodologiko edo edukizkoa izanik, zenbait liburuen artean zalantzaren bat izatekotan, proposatutako irizpide hauek erabakiorrak izan daitezke. Esaterako, testuliburu jakin batean arrazakeria, sexu-diskriminazioa, errakuntza mordoa, gezurra, autoritarismoaren gorazarrea eta abar nabarmena denean, besterik ez dugu behar testuliburu hori baztertzeke. Dena den, aurreko hori ez da beti horren nabarmena izaten. Horregatik, ohiko egoera horretan, irizpide objektiboak beharko genituzke testuliburu bat edo bestea aukeratzeko orduan. Esanak esan, eraturako behagailua eta beraren bitartez lortutako emaitzen aurkezpena bertan topa zenezakete.

Normalkuntza, zenbait kontzeptu

Laugarren ataletan, sarreran aipatutako bi ikerketen arteko uztarketa egiten saiatu gara; oro har, uztarketa hau normal-kuntza-kontzeptuaren baitan azaltzen dugu, nahiz eta atal honetan esplizituki agertu hizkuntza-normalkuntzaren ideia. Hizkuntza-normalkuntza, jakina, kultura-normalkuntza kontzeptu zabalagoaren esparruan kokatu beharra dago, eta honela uler daiteke aurreko ataletan landutakoa.

Oro har, normalkuntzaz dihardugunean, euskararen berreskurapenaz ari gara, lurralde osoan bai maila pertsonalean, eta bai sozialean eta ofizialean ere, inolako menpekotasunik gabeko erabileraren bitartez gauzatzen dena, alegia.

Liburu honetan lantzen dugun esparruari dagokionean, hezkuntza/irakaskuntza hain zuzen ere, normaldutako

egoeran euskara izango litzateke irakaskuntza-sistemaren berezko hizkuntza; beraren bitartez ikasi eta komunikatuko ginatke, bera izango litzateke hezkuntza-tresna eta bera kultura transmititzeko eta sortzeko bitartekoa.

Argi dago prozesu gisa ulertu beharra dagoela, eta ibilbidea luzea denez, okerreko bidea ez hartzen ahalegindu behar dugu, eta urratu beharreko bide horretan urrats bat edo beste ematea da lan honen helburua.

Guztiek onartutako ideia da, hizkuntza ikur-sistema jakin bat barneratzeko ohiko bitartekoa dela (kultura ikastekoa), eta jardun ondoren mundua irudikatzen modu hau ezaugarri bereziz janzen dela. Aipatutako ezaugarri hauek ez dira egonkorak; hizkuntzak eraldatuz doaz denboraren poderioz, egokitze-beharren eta kultur konplexutasunaren mailaren arabera. Hizkuntza eta kultura uztarturik daude, beraz, eta gizarte jakin baten ezaugarri bilakatzen dira.

Hizkuntzaren alderdi soziala azpimarratzen jarraituko dugu. Izan ere, haurrak hitz egiten ikasten badu, berari hitz egiten diotelako da. Hitz egiten ikasiko duela itxaro dugu, eta jaiotzen den une beretik hizketan hasten gatzaizkio. Ezinbestekoa da, beraz, jardun soziala. Hain da garrantzizkoa alderdi soziokomunikatiboa, ezen haurrak ezin ikas baitezake hizketan inor berarekin interesaturik ez badago, inolako estimulaziorik gabe bakarrik uzten badugu, edota entzuten duen hizketaren esanahia sekula bere mailari egokitzen ez bazaio.

Ideiak elkarren artean trukatu ahal eta nahi izatea gizakien ezaugarria da, hizkuntzaren bitartez lortzen duguna. Hau dela-eta, bereziki gizartekide egiten gaituena hizkuntza dela esan ohi dugu. Beraz, hizkuntzak hurbildu egiten gaitu, baina bai eta aldi berean banatu ere, kultura bat besteagandik bereizten den hein berean.

Soinu bat –hitz bat– ez da haurraren gana helduko baldin eta haurraren interesa pizten duen gauza zehatzari lotzen ez bazaio, edota une horretako hausnarketari ez badagokio: ahoskatutako hitzak haurraren une horretako kezkarri lotzen bazaizkio, hitzak iritsiko zaizkio, bere aplikazio eta esanahia une berean

G A I A

Hezkuntzaren Normalkuntza

Hezkuntza, kultura, curriculum eta normalkuntza

ikusiko duelako. Hizkuntzaren bitartez haurrak bere garun-eragiketak eta ohiko gizarte-harremanak arautu ahal izango ditu eta, honekin batera, hizkuntzak bere asabek kultur ondareaz jabetzeko bitartekoa eskainiko dio.

Jasoko duen kode-mota, bera txertatuta dagoen ingurune linguistikoaren arabera izango da hastapenean. Zenbait kasutan kodeak eskasa eta urria izaten jarraituko du, baina beste zenbaitetan hizkuntza dotore apainduko da eta zehaztasun-maila handia lortuko du, zeinaren bitartez eskola- eta lan-munduko arrakasta bideratu eta zientzia eta kulturaren giltzarri bilakatuko den.

Pentsamenduaren garapena, gizakien gaitasun, kultur baldintza orokor eta gizartearen antolaketaren arabera da nagusiki, eta ez hizkuntzaren natura bereziaren menpekoa, nahiz eta hau tresnatzat erabili, pentsamendua bera moldatu eta adierazi ahal izateko.

Lengoiari esker pentsamenduak errealitatearen osagarri funtsezkoenak zehaztu ditzake, eta zuzeneko hautematean desberdinak diruditen gertakizun eta eiteak kategoriatan berdinpean sailkatu

“Curriculumaren definizioan, kulturaren iraganeko, oraingo eta etorkizuneko dimentsioak eta etikaren dimentsioak uztartzen dira”



Xabier GARAGORRI

Hezkuntzaren Normalkuntza



eta errealtatearen alderdi edo maila desberdinei dagozkien fenomenoak antzeman. Pentsamenduaren bitartez haute-mateak ezarritako mugak gainditzen dituen kontzeptu abstraktuak sortu eta ondorio logikoak era ditzake: arrazamendu logikoaren prozesuak burutzea ahalbidetzen ditu, eta beraren bilakae-ran esperientzia zuzenaren bitartez ezin jaso daitezkeen arauak aurkitzea. Errealtatea zuzeneko haute-matearen bitartez baino askoz ere modu sakonagoan adieraztea ahalbidetzen du.

Hizkuntzaren jabe-kuntzan prozesu biologiko, psikologiko eta kulturalak eragiten dute. Ikaskuntza, prozesu eraginkor eta hautatzailea da, eta honegatik beragatik, inguru kulturalarekiko egokitzapen-modu jakin bat. Hizkuntza-sistema sortzailea dela kontuan hartzen badugu, eta esanahi bera adierazteko mekanismo desberdinak erabil ditzakeela, estrategia jakin baten aukeratzea komunikazio-modu jakin bati lotuta dagoela esan genezake, hizkuntzaren erabilera ulertzeko modu jakin batekin, alegia. Eta honegatik pentsa genezake, haurren inguruan bizi diren helduek komunikazioa egituratzeko duten moduari dagoela lotuta, haurrei mintzo zaizkienean hautatzen duten edukiarekin; orokorrean, haurren inguruan erabiltzen den hizkuntzaren ezaugarriekin (Slobin, 1985). Beraz, honen arabera, ikaskuntza-modua desberdina izan daiteke inguru sozialaren

baldintzen arabera bai eta hizkuntzari ematen zaion garrantzi eta estimulazioaren arabera ere.

Ikuspegi vygotskiarrarekin bat eginenez, gure ustetan norbanakoaren hizkuntza-garapenaren abiaburua hurbile-neko hizkuntzaren testuinguruan datza. Hizkuntzaren garabidea, norbanakoaren gaitasunaren eta gizartearen hizkuntza-egoeraren ondorio dinamiko gisa uler daiteke. Ondorio dinamikoa diogu, izan ere, denboraren jarioan aldakorra izanik, gizabanakoen eta gizartearen baldintza beretsuek ez baitakarte ezinbestean garapen bera eta bakarra. Vygotskik proposatutako bereizketa -garapen organiko edo biologikoa batetik eta garapen kulturala edo soziala bestetik- guztiz emankorra delako gurea bezalako egoera nahasiak argitzeko. Biak -garapen biologikoa eta garapen kulturala-, elkarri uztarturik gauzatzen dira, jakina, gutariko bakoitzarengan, baina garapen biologikoaren ildoetan ez dago pertsonaren etorkizuna zehazturik, ez dago determinismorik, alegia, eta hau oso garrantzitsua da.

Gizartea, norbanakoaren portaeraren faktorerik aurrenetakoa da Vygotskiren hitzetan. Hori horrela izanik, banakakoaren garapen kulturala (hizkuntza jabe-kuntza, hitzezko pentsamendua eta abar) ulertu ahal izateko gizarteari so egitea ezinbestekoa da. Akulturazio, asimilazio, gutxiespenak eta antzerako prozesu sozialak pertsonarengan islatzen dira.

Euskal Herriaren kasuan ere, gutako bakoitzaren garapen kulturala estuki lotzen zaio bilakaera kolektiboari. Nola ulertu bestela norbanakoa eta giza-taldearen arteko lotura? Ikus dezagun bada, non gauden eta nondik gatozen. XVIII. mendera arte Euskal Herriko biztanleria, gehiengo behintzat, euskalduna zen. Euskaldun elebakarra zehatzago.

Edozelan ere, guri gehien interesatzen zaiguna euskal gizartearen eraldaketa linguistikoa da. Apenas 300 urtetan gizartea ia guztiz euskaldun elebakarra izatetik euskara ia galtzeraino iritsi da. Ez da gure xedea zergatik gertatu den arakatzea eta sakontzea. Prozesua da interesatzen zaiguna, aldaketa izan da, etengabeko aldaketan bizi gara. Berrehun

urte modu bortitzean euskara galtzen eta azkeneko 50 urteotan berreskurapenaren aldeko borroka latzen dihardugu. Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu da, Nafarroan eta Iparraldean gertatzen ari da, hiru belaunaldietan mutur bate-tik bestera igarotzea: familia guztiz euskalduna izatetik guztiz erdalduna izatera heltzea. Horrek ez du ondoriorik pertsonengan? Gertaera hori ez da islatzen norbanakoaren garapenean?

Hamaika galdera eginda ere, ez genuke zentzuzko erantzun bakar bat lortuko ikuspegi argia eduki ezean. Berreskurapenaren bidean gure burua ahalik eta ondoen ulertu behar dugu. Izan ere, ez baitago berreskurapen posiblerik euskal gizartearen garapenetatik at, etorkizuna iraganik gabe ezinezkoa den hein berean. Euskara galtze jarri zuten faktoreak asko izan dira eta oraindik ere badiraute.

Dena den, hizkuntza eta curriculuma elkarri lotzen zaizkiolarik, orain artean esandakoaz gain beste zenbait zehaztapen egitea komenigarria dela uste dugu. Curriculumaren alderdi dinamikoari helduko diogu kasu honetan; alegia, garapenaz mintzatuko gara berriro ere. Baina, darabilgun eredu teorikoa ahaztu gabe, gizarteari so.

1. Lehengo esanagatik ere, gure azterlanaren harian orain berriro azpimarratu nahi genuke lehengo ideia; hizkuntzen arteko ukipen egoeran bizi izanagatik norbanakoaren batasun funtzionala ez dela hausten. Elebiduntasunak norbanakoari dakarkiokeen malgutasuna, norbanakoaren gaitasunen (hizkuntza gaitasunak batipat) eta bizi izandako hizkuntzen arteko ukipenaren arabera-koa da. Hitzezko pentsamenduari zoz nabarmentzekotan, datzekion alderdi soziala nabarmenduko genioke, hitzak edo hizkuntzak dakarkiona hain zuzen ere; dagoeneko aski frogatua izan baita hizkuntza, neurri batean gutxi-nik, pentsamenduaren euskarria dela. Barne-hizkuntza zuzenean gertaera behagarria ez bada ere, badela izan, duda izpirik ez dago (Vygotski, 1924); baina barne-hizkuntzaren sorburua ez dagokio norbanakoari, gizarteari baizik, elkarren arteko hartu-emanei esker -komunikazioari alegia- gauzatzen baita.

Edozein hizkuntza komunikazio-tresna modura definitu ohi da, eta definizio horrekin bat gatoz. Alabaina, komunikazioa esaterakoan oinarriko funtzio komunikatiboak soilik aditzera eman nahi baldin badira mugaketa antzua egiten delakoan gaude. Arestian esan moduan, hizkuntza ez da soilik kanpo komunikazioetarako erabiltzen, emozioetan, arreta, oroimena, irudimena, kontzientzia, pentsamenduaren garapenean eta, oro har, pertsonaren barne jardura orotan maila batean edo bestean erabili beharrekoa da. Hizkuntzaren azterketan, berriz diogu, ikuspegi osoa eta integratua ezinbestekoa da.

Hizkuntzen arteko ukipen egoera ez-orekatsua dakarren asimetriak, hizkuntzen arteko funtzio-esparru banaketa asimetrikoa ekarri ohi du, edo, alderantziz, hizkuntzen arteko funtzio-esparru banaketa asimetrikoak, hizkuntzen arteko asimetria azal dezake. Edonola ere, egoera asimetrikoa izanagatik, ezin uler dezakegu hiztun guztiak linguistikoki asimetrikoak direnik nahiz gehienok gizarte mailako asimetriak eraginda, horrekiko joera izan.

Hizkuntzen arteko asimetria eta diglosia baliokidetzat hartuak izan badira ere, honetan bi kontzeptuen artean bereizketa egin beharra dago. Arestian aipatutako moduan Ferguson-en (1959) ideia, hizkuntz kode desberdinen erabilera berezituarena, goi-mailarako bata eta maila arrunterako bestea, Euskal Herriko bezalako hizkuntzen arteko ukipen egoeran hizkuntzetako bakoitzari egozteak gertatzen ari dena ezkuta dezake. Zer gertatzen ari da euskara batua (kulturarako, unibertsitate-rako, literaturarako, komunikabideetarako, administraziorako eta abar dena, hizkuntza idatzia finean) eta kaleko euskararen (euskalki, azpi-euskalki, aldaki eta azpi-aldaki) arrunten artean? Diglosia ote? Nola definitu bestela hizkuntza idatziaren murgilean gabiltzanok euskararen bertan egin ohi dugun funtzio-esparru bereizketa? Gertaera horrek ez ote du izenik merezi? Ez ote da areagotuko euskaldunen belaunaldi berriengan kulturako edo etxeko euskararen arteko bereizketa? Azken buru, ba al dago esaterik euskararen bertan diglo-

G A I A

Hezkuntzaren Normalkuntza

Hezkuntza, kultura, curriculum eta normalkuntza

siarik ez dagoenik? Zergatik kezkatzen gaitu orduan euskararen kalitateak?

Gure aburuz, euskara bera ere diglosiak jota dago. Gure hizkuntza, hizkuntzen arteko asimetriaren menpe izateaz gain, diglosia egoeran ere badago egon. Horrela soilik uler dezakegu euskaldunen belaunaldi eskolatu eta landuak eta euskaraz eskolatu gabeko belaunaldi euskaldunen arteko haustura.

Hemendik aurrera, derrigorrezko eskolaldia bide, jatorrizko euskaldunek bere euskalkia eskuratzearaz gain, euskara batua edo kulturaren euskara ere jaso behar dute. Laster batean helduko da, dagoeneko etorri ez bada, bizkaitar eta zuberotarren arteko euskara komunak euskalkien mugak gainditzeko garaia. Honek ez dakar euskalkien desagerpena halabeharrez, ez eta gutxiago ere; euskara batuak kendu baino, gehitu egiten baitu. Dagoeneko, komunikabideetako, unibertsitateetako, eskoletako, eta abarretako hizkuntza, euskara bat baina ez bakarria daukagu.

Kultur hizkuntza, hizkuntza landua, kulturaren hedabidea izango bada eta da, norbanakoak ere haren beharra du

“ Jatorrizko erdaldunak euskalduntzeko murgiltze eredua da eraginkorrena; hots, euskarazko irakaskuntza ezinbesteko baldintza da elebidun orekatua izan ahal izateko ”



Lore ERRIONDO

bere goi mailako garapenerako. Horra hor euskaldunon erronka. Azpimarra dezagun berriz ere, norbanakoaren batasun funtzionala oinarri, bi hizkuntzen jabe izateak ez dakarrela aparteko berezitasunik. Dagoeneko badakigu jakin elebiduna izatea munduan zehar oso egoera arrunta dela. Mendebaldean elebidunok salbuespena baino ohikoak gara. Elebiduntasuna ikusmira horretatik normala da, beraz. Egoera berezia oster, gizarte mailan dagoena da. Hizkuntzen arteko ukipen egoerak, egoera bereziak dira; are gehiago, ez dago bat bestek definitzeko eredugarria denik, arruntak izanagatik, anitzak dira.

Dena den, bi hizkuntzatan bizitzeak nortasuna edo banakako gaitasun zein oinarritzko prozesu psikologikoen bikoizketa edo murrizketa dakarrela pentsatzen duena oker dago. Ez dugu holakorik gure ikerketetan somatu eta ez dugu inolako arrazoirik hori gerta daitekeenik pentsatzeko.

Hizkuntzen arteko ukipen egoeran murgildurik bizi izanagatik derrigorrezko eskolaren funtsezko betekizunak ez dira aldatzen edo, gure aburuz, ez lukete esanguratsuki ezertan aldatu behar.

Derrigorrezko eskolaldian (16 urte bitartean orain) neska-mutil guztiak zehatz-mehatz definitutako ezaguera-erudiak bereganatu behar dituzte harik eta ezaguera arlo horietan maila jakin bat lortzeraino. Ikuspegi honetatik hizkuntza(k) aldi berean ikasgai zein ikasbide izan daite(z)ke. Hizkuntza testuinguru normalizatuan ez dago batere arazorik bereizketa hori zehaztasun osoz erdiesteko; horrelakoetan hizkuntza bakarra, alderdi formalean ikasgai bada ere, ikasbide bakarra izaten da beti. Bi hizkuntza elkarren ukipenean daudelarik aurreneko arazoa hori berori da; hots, bi hizkuntzetatik zein hartu eskola-hizkuntza gisa, bata, bestea ala biak.

Erabakitzerakoan indarrean dagoen hezkuntza sistema kontuan hartu behar dugu. Jakinaenez, hezkuntza sistema normalizatuetan, oro har, eskola-hizkuntza ikasleriaren hizkuntza baino ez da, baina murgiltze ereduak deritzonetan hizkuntza ikasbide nagusia ikaslearen jatorrizko ez den beste hizkuntza

izan ohi da. Hau horrela izanik, hizkuntzen arteko ukipen egoerako eskoletan eskola-hizkuntza hautatzea funtsean arazo politikoa da; izan ere, aspaldidanik frogatuta baitago irakaskuntza edozein hizkuntzatan gara eta burutu daitekeela. Agian erantsi beharko genuke corpus estandarizatua duen edozein hizkuntzatan.

Euskara batuak hizkuntza estandarizatu bezala nahikotasun maila lortu du eskola-hizkuntza izan ahal izateko Hala ere, oraindik arazo ugari dago, hala nola ikasmaterial urria, hizkuntza idatziaren eredu-aniztasuna (euskalkiak)... Erdararen kasuan, oster, eskola-hizkuntza izan daitekeela duda izpirik ez daukagu, urteetako esperientziak bermatzen baitu, badagoela egon halako eskola-erdera; hots, erdararen hizkera formal bat adin eta ikasturte maila jakinetan edozein eskolatan irakasten eta erabiltzen dena. Honela, erdal eskoletako neska-mutikoen erdara idatzia aztertuko bage-nu, haien arteko diferentzia esanguratsurik ez genuke antzemango; ez bada jakina, hezkuntza eredu (publiko/pribatu) desberdinen artean edo, klase sozialen artean eman litezkeenak, edota bakoitzaren gaitasun mailari lotuta daudenak.

Dena den, ez dagokigu guri hizkuntzaren corpusa bat-batean finkatzea, hori prozesu luzea eta korapilatsuagoa da, egunez egun eta urtez urte burutzen dena, alegia. Haatik euskal eskolari dagokio bere eskola-hizkuntza estandarra garatzea, corpus-ean eragin esanguratsua izan dezakeen euskara, hain zuzen ere.

Orain artean jakintza arloak edo erudiak aipatu ditugu, eta hizkuntza(k) dela haien jabetzarako bide. Hala ere, ezin ahantz dezakegu derrigorrezko eskolaldian gauzatzen dela pentsamenduaren oinarritzko eta funtsezkoen garapena. Zertan eragiten du, bada, eskola-hizkuntzak pentsamenduaren garapenean? Zaila da benetan galdera horri erantzun zuzena ematea; hala ere, zerbait esateko moduan gaudela uste dugu.

- Jatorrizko hizkuntza aurreneko urteetan hitzezko pentsamenduaren oinarria da. Beste hizkuntzarik ez dagoenean hizkuntza hori hitzezko pentsamenduaren

oinarri bakarra da eta hitzezko pentsamenduaren garapena hizkuntza horren garapenari lotzen zaio ezinbestean.

- Nerabezaroaren atarian eta nerabezaroan egitura berri bat agertzen da pentsamenduan: kontzeptua. Jatorrizko hizkuntza besterik ez dagoenean kontzeptua eta pentsamendu berriaren garapena aurreneko hizkuntza horri lotzen zaio ezinbestean eta, ondorioz, pentsamendu mota berri hori, lehen bezala, hizkuntzaren garapen mailari ere lotzen zaio.

- Orokorrean hitzezko pentsamenduaren garapena, hizkuntzaren garapen mailan bertan antzeman daiteke. Hots, zenbat eta hizkuntza landuagoa eta aberatsagoa izan, orduan eta pentsamendu landuagoa eta aberatsagoa izaten dela esan dezakegu.

- Hori horrela, hizkuntza bere osotasunean harturik, ezin har genezake hizkuntza eskola eremuan kanpo-komunikaziorako tresna gisa soilik, garapen osorako tresna gisa hartu behar dugu. Goi mailako hiztunak lortzea goi mailako ikasleak lortzearekin bat dator, oro har. Hizkuntza urria eta traketsa darabilen horrek agian kale mailako komunikazioan ez du inolako arazorik, baina izan dezake bere eskola garapenean.

- Jatorriz bi hizkuntza dituenak hitzezko pentsamendua batean, bestean edo bietan aldi berean gara dezake. Elebidun hauek besteekiko desberdinak izatekotan malguagoak direla esan genezake, elebarrak baino tresna gehiago erabiltzen dutelako, egoera desberdin gehiagori aurre egin behar dietelako eta ugariagoen jabe izaten direlako orokorrean, baina ez besterik. Jatorrizko elebidun hauek lantzen duten hitzezko pentsamenduaren hizkuntza hein handi batean eskolaren menpe dago; hots, zein eskola-hizkuntza ezartzen zaienaren arabera eta honek berebiziko garrantzia du hizkuntzen arteko egoera asimetrikoan murgildutako eskolan. Izan ere, hizkuntzetako bat minorizatutako egoeran dagoenez, ez da gizarte mailan eskubide berdintsuak bermatzen, ez eta hiztun eta kultur garapenean bi hizkuntzatan, hizkuntza gutxiagotuan gauzatzen ez bada behintzat. Izan ere, egoera honek beronek eragiten baitu hizkuntza gutxia-

gotuan jasotakoak bermatzen duen garabidea hizkuntza nagusian ere ondoren berez gauzatzea. Baina inolaz ere ez alderantziz.

- Jatorrizko elebidunen kasuan kontzeptua eskola-hizkuntzaren arabera ere definitzen da. Horrek defini dezake neuririk handienez hitzun horien hizkuntza portaera, hizkuntza batekiko edo bestearekiko joera izatea, hain zuzen ere.

- Eskola normalizatueta ez da erabiltzen eskola-hizkuntza bezala inolako kale-hizkera ez eta giza multzo jakin bateko hizkera berezia ere. Aipatu eskola-hizkuntza hori eskolen arteko eredu amankomuna eta estandarizatu da, ikasleen ikasmaita eta adinari egokitu eta erraztasun/zailtasun edo konplexutasun dimentsioaren arabera antolatua. Zenbat eta maila landuagoa izan eskola-hizkuntza eta kale-hizkeren arteko distantzia are nabarmenagoa izan ohi da. Ikasleei ez zaizkie onartzen hizkuntza eredu ez-formalak beren eskola lan formaletan; eredu ez-formal horiek etengabe zuzendu eta dagokion eredu formala jakinarazten zaie ikas dezaten.

Hizkuntzen arteko ukipen egoera desorekatueta –nagusitasun/menpekotasun erlazioa ezartzen denean–, eskola, hizkuntzen ordezkapenerako tresna erabili izan da. Horrelakoetan eskola-hizkuntza hizkuntza gutxiagotua izan beharrean bestea ezarri izan da, nagusia, ordezkapenerako hizkuntza dei geniezaiokeena. Hizkuntza gutxiagotutako ikasleek hizkuntza arrotzaren murgilean haien jatorrizko hizkuntzan elkar mintzatzeari utzi behar zioten aurrenik eta, garrantzitsuena, hizkuntza arrotzean pentsatzen ikasi harik eta jatorrizko hizkuntza hitzezko pentsamendutik baztertu arte, nahiz eta oinarrizko komunikaziorako (etxean, lagunartean...) galdu ez. Horren helburua, hitzuna iraultzea zen, ez soilik behagarria den hizkuntza portaerari begira, batez ere barne hizkuntzari begira; hots hitzezko pentsamendua eta kontzeptuaren garapenari begira hitzunaren baitan hizkuntzak ordezkatu. Izan ere, gehienetan hizkuntza jakin batean pentsatzen duen hitzuna horrekiko joera erakusten baitu.

Hizkuntza(k) irakasterakoan egin ohi den bereizketa, 1. hizkuntza, 2. hizkun-

G A I A

Hezkuntzaren Normalkuntza

Hezkuntza, kultura, curriculum eta normalkuntza

tza eta 3. hizkuntza (moderno) ez da pentsa daitekeen bezain inozoa. Bereizketak berak bere zama badakar ekarri. Aritu askoren ustetan urte luzez hitzunen berezko garapenari atxekiz normaltasunak jatorrizko hizkuntzaren bilakaerari darraiola aldarrikatu izan da. Hori, jakina, jatorrizko erdalduen kasurako ezarri da beti; jatorrizko euskaldunen kasuan, ostera, normaltasuna elebiduntasunari edo eleaniztasunari esan zaio. Badirudi hizkuntza gutxiagotutako hitzunek lortu behar dutela, eta lortu ere, hizkuntza nagusietako hitzunen adinako gaitasuna hizkuntza nagusian. Hizkuntza nagusitako hitzun elebkarrek, aldiz, hizkuntza gutxiagotuan oinarrizko komunikaziorako gaitasuna aski dute.


Edozein eleaniztun, bere eguneroko jardunean hizkuntza bat edo bestea erabiltzerakoan, bi irizpide nagusiren menpean aritzen da:

1. Ondoen menperatzen duen hizkuntza aukeratuko du.

2. Bere inguruan gehien erabiltzen den hizkuntza hautatuko du.

Dakizkigun hizkuntzak gure baitan

“Jatorrizko euskaldunen kasuan, hizkuntzen arteko ukipen egoera asimetrikoa zioa, elebiduntasun orekatua euskarazko irakaskuntza bidez soilik lor dezaketela behin eta birritan berretsi da”



Xabier ISASI

maila berekoak direnean, gure hizkuntza erabilera ingurunearen menpe dago. Horregatik, egoera soziolinguistikoa desorekatua denean hiztun desorekatuak izatea ezinbesteko ondorioa da. Egoera soziolinguistikoa orekatua izatea tamalez ia ezinezkoa denez, hizkuntza gutxiagotutako hiztunak elebidun desorekatuak izaten behartuta daude.

Esandako hau guztia elebiduntasunari buruzko ikerketetan nabarmenki antze-man izan dugu. Ikastoletako urte luzee-tako esperientzia batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako eredu elebidunen hamaika urteko esperientzia bestetik, nahikoak dira argi eta garbi esateko jatorrizko erdaldunak euskalduntzeko murgiltze eredia dela eraginkorrena; hots, euskarazko irakaskuntza ezinbesteko baldintza dela elebidun orekatua izan ahal izateko. Jatorrizko euskaldunen kasuan, ordea, hizkuntzen arteko ukipen egoera asimetrikoa zioa, elebiduntasun orekatua euskarazko irakaskuntza bidez soilik lor dezaketela behin eta birritan berretsi da egindako behaketa guztietan.

Lehen elebidun orekatua aipatu dugu, gure ustez zorioneko hiztun mota hori, funtsean, hizkuntza batean zein bestean elebakarren parekoa izatean datza. Alegia edozein funtzio, oinarrikoenetatik hasita konplexuenetaraino, hizkuntza bakoitzean maila berean burutu ahal dezakeena, hizkuntzen arte-

ko inolako nahasketarik gabe; bi hizkuntza-sistemen arteko independentzia adierazten duen hiztuna, alegia.

Azken buru, menpeko egoeran gaudela jabetzeaz gainera, normaldu nahi ote dugun da erabaki behar duguna eta egoera hori gaingitu ahal izateko oinarriak sendo finkatu, edozein ikaskuntzari arrakastaz bereganatzeko eta etekinak ateratzeko (baita beste hizkuntzan ere) prestatu. Irizpide nabar horietan kokatzen dugu hainbat gurasok eta irakaslek somatutako erdararen beharra. Gure ustetan, erdararen beharra baino kultur hizkuntzaren beharra da.

Hizkuntzen arteko asimetria faktore askoren ondorioa izanik ere, neur daitekeelakoan gaude. Bai gizarte mailan zein gizabanakoarengan, hizkuntza bakoitzak betetzen dituen funtzioak eta esparruak zehaztuz. Gure kasuan hizkuntzen arteko erlazioa asimetrikoa delarik, hiztun gehienengan hizkuntzen arteko erlazioa ere asimetrikoa da, eta gauza bera islatzen da eskolan. Honetan L. S. Vygotskiren ideiak ditugu bidelagun. Azken buru, gizarte behagarri dena, aipatu asimetria, hiztunei zor zaie; zaila da hiztun orekatua izaterik egoera desorekatuan.

Hizkuntza-prestasuna. Lexikometria

Euskal Eskolak badu nola lagundu,

gure ikasleak elebidun orekatuak izatea nahi badugu. Gakoa, gure aburuz, euskararen eremuan dago; asimetria pairatzen duen hizkuntzak behar du laguntza.

Adibide modura aipa genezake Urola bailaran euskararen goren mailako garapenari pareko erdararen garapena lotzen zaiola antzeman genuela. Are zehatzago, 12 urteren inguruan hizkuntzen arteko nolabaiteko oreka behatzen bazen ere, adin horretatik aurrera euskararen garapena moteltzen zen bitartean gaztelararen garapena abiada bizikoa zela antzematen genuen ia kasu guztietan. Nola azal daiteke gertaera hori eskualde euskaldun, hizkuntza eredu euskaldunetan eta ia ikasle guztiak jatorrizko euskaldunak izanda?

Erdaren murgilean bizi gara euskaldunak eta hizkuntza nagusiek indar handia egiten dute euskara gure baitan ordezkatzeko. Indar ikaragarri horri aurre egiteko hesi bat jarri nahi izan diogu: euskararekiko atxikimendua. Maitasuna, motibazioa, aldeko jarrera eta abar hori omen da batzuen ustez euskararen euskarria. Zoritxarrez, euskararen ordezkapen eta desagerpen prozesuan hesi hori ahulegia da eta behin baino gehiagotan gaingitua izaten da. Beharrezkoa izan arren ere, ez da nahikoa.

Horrela ulertutako euskararekiko atxikimenduak ezin euts diezaioke luzaro hizkuntza biziari. Oraingo egoeran ezinbestekoa da, hori egia da, baina ez du euskararen biziraupena bermatzen, ez da normalkuntza. Azkeneko urte hauetan zenbait lurraldetan euskara berreskurapen bidean jarri bada, batez ere, hizkuntza normaltzeko eraikitako tresnei esker izan da. Guztien artean euskara batua azpimarratuko genuke. Horrekin batera, ikastolen mugimendua, euskalduntze alfabetatze mugimenduak, euskarazko hedabideak eta, oro har, euskarazko kulturgintza eta euskaraz bizitzeko ekimenak. Horiek dira euskararen biziraupenerako benetako euskarriak, ekimen horiek adierazten digute zein den normalkuntzarako bidea. Legeak eta arauak, berriz, onuragarriak dira euskaldunei babes ematen dietenean, baina oso kaltegarriak kontra daudenean.



elkarriketa

BEGOÑA MARTINEZ

“*Eskola ez da gizartean sortzen diren estereotipoen eraginetik atgeratzen*”



Begoña MARTINEZ, Emakundek Gasteizen 1.998ko urriaren 8an antolatutako "Hezkidetzan oinarrituta hezi" jardunaldian

BEGOÑA
MARTINEZ



“*Hezitzaileok norberak dauzkagun estereotipoen eta aurreiritzien gainean hausnartu behar dugu*”

Begoña Martínez EHuko Pedagogia Fakultateko irakaslea da, Didaktika eta Antolaketa departamentukoa, zehatzago esanda. Berarekin izan dugun solasean hezkidetzaz izan dugu ardatz. Egungo gizartean dauden estereotipoen eta eskolan duten presentziaren mintzatu zaigu.

Jakina da eskolak baloreak eta estereotipoak transmititzen dituela. Baina gai honetan sakontzen hasi aurretik, defini ditzagun kontzeptuak. Zer dira estereotipoak?

Beno, modu simple batez esanda, estereotipoak giza talde batzuei buruz egiten ditugun irudi sinplifikatuak eta orokortuak direla esango nuke. Gehiengoak bat egiten du ideia hauekin eta taldekotzat hartzen diren pertsonen erantzunak zaizkie.

Estereotipoen berezitasuna zera da: egiakoak eta faltsuak direla aldi berean, onak eta txarrak. Egiazkoak dira aukeratuak ezaugarriak existitzen direlako, nahiz eta askoren arteko aukeraketa bat baino ez izan eta ezberdintasun indibidualak kontuan ez hartu. Eta faltsuak dira beraien aukeraketa interesatuak errealitatea distorsionatzen duelako eta subjektu indibidual gisa harturiko inongo pertsonak ez duelako ezartzen duten profila betetzen.

Bestalde, ingurutik jasotzen dugun informazio konplexutasunaren kaosa antolatzen laguntzen digute estereotipoak. Baina txarrak dira era berean, gure taldekoak ez diren pertsonengandik jasotzen dugun informazio mugatu egiten dutelako. Eta informazio hori mugatzean, pertsona horien espektatibak, epaiak eta jarrerak mugatzen dituzte.

Kontuan hartzeko beste gauza bat zera da: estereotipoak garai guztietan eta talde sozial eta kultural guztietan existitu izan direla, nahiz eta beraien edukia (ezaugarriak, baloreak, rolak eta abar) eta erakuntza prozesua aldatu.

Estereotipo bat existitzen dela esateko, beharrezkoa da talde bateko kideak identifikatzeko ezaugarri, atributu edo portaerak egotea, hauek talde osoan zabaldua egotea, beste taldeengandik bereizteko balio izatea eta taldekideen arteko desberdintasunak beste taldeetako pertsonetakoak baino txikiagoak izatea.

Baloreei dagokienez, nola definituko zenituzke?

Asko sinplifikatuta, baloreak pertsona bakoitzak ekintza bat, berea edo bestea, zuzena edo okerra bezala ebaluatzeko erabiltzen dituen kriterioak direla esan daiteke. Eta baita bere portaera batzuk beste batzuen gaineratik jartzeko ere. Askotan baloreak arauekin eta jarrerekin nahastu ohi dira. Arauak gizarte batek elkarbizitza hobetzeko egiten dituen akordioak dira. Eta jarrera balore jakin batzuen garapena errazten duen etengabeko egoera da. Gainera, gehienetan jarrera arau zehatz batean islatzen da, eta aldi berean balore bat inplikatzeko du. Adibidez, entzuteko jarrera besteak hitz egiten daudenean isilik egoteko arauan adieraz daiteke, zeinak besteenganaiko errespetuaren balorea inplikatzeko duen.

Zein da estereotipoen eta baloreen arteko erlazioa?

Baloreak estereotipoen edukien zati bat dira. Talde soziokultural ezberdinak balore-eskalaren arabera ezberdintzen dira. Eta gainera, estereotipoek balore dimentsioa dute, estereotipoak definitzeko erabiltzen diren ezaugarriak balorazioz beteta daudelako. Adibidez, gure testuinguruan emakumezkoen estereotipoak emakume taldeari menpenkotasunaren ezaugarria ematen dio. Orokorrean ezaugarri hau sozialki autonomia eta independentea izatea baino gutxiago baloratzen da, hau gizonezkoen taldeari atxikitzen zaiolarik. Horrela, zeharka, estereotipo femeninoak subjektu sozial bezala emakume debalutuaren irudia hartzen du.

Nola eratzen dira estereotipoak?

Hiru prozesuren ondorioz sortzen dira: mailaketa, konparaketa eta atribuzioa. Hauek harreman interpersonean gertatzen dira, arreta eta interpretazio prozesuen bidez pertsonen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak antzematen ditugunean. Izan ere, gizakiaren aniztasunak hainbeste nabardura dauzka, non errazagoa suertatzen zaigun errealitate soziala kategoriak eginez, beraien arteko ezberdintasunak markatuz eta bakoitzari ezaugarri bereziak emanez ulertzea.

Taldearen arteko harremanetan ere gertatzen da identitatearen eta konparaketa sozialaren prozesua. Hau da, talde batekoak izatearen sententzia, beste taldeekiko ezberdin sentituz.

Prozesu hauen oinarrian talde bakoitzak zaindu behar dituen baloreak daude. Prozesu hauek beste taldeekin batera sozialki

sendotzen lagundu behar ligukete, baina askotan nortasun hori beste taldeen aurrean eta aurka eraikitzaera eramaten gaituzte.

Zein estereotipo mota daude?

Testuinguru soziokultural bakoitzean identifikatu ditzakegun talde bereizgarri adina estereotipo daude. Batzuk, generoa, arraza, gutxiengo etnikoak, talde erlijiosoak eta abar, ezagunagoak eta unibertsalak dira. Baina gehiago ere badaude. Pentsatu beste-rik ez daukagu ezagutzen ez dugun pertsona bati buruz zenbat informazio emateko prest egongo ginatekeen talde jakin batekoa dela jakinik soilik (adina, klase soziala, lanbidea, jaiotze lekua eta abar). Honek erakusten digu talde hauei buruzko irudi bat (estereotipoa) egina daukagula geure buruan. Irudi honek pertsona hori den bezala ezagutzen oztapatzen digu. Eta uste genuen bezalako ez dela konturatzeko bagara, pertsona hori talde horren barruan salbuespen bat dela pentsatu ohi digu.

Nolakoak dira estereotipoak eduki aldetik?

Edukiak positiboak, negatiboak edo neutroak izan daitezke. Talde bateko kide bezala pertsona bakoitza zein ideiarekin lotzen dugun ikusita eta ideia, ohitura edo jarrera horrek gizartean duen garrantzia kontuan hartuta, estereotipo hori positiboa, negatiboa edo neutroa izango da. Adibidez, katalanak zuhurak direla esaten dugunean estereotipo negatibo bat erabiltzen ari gara. Baina euskaldunak oso langileak garela esatean, positiboa. Ijitoak begi beltzak dituztela esaten, berriz, estereotipo neutro bati egiten diogu erreferentzia.

Zenbateko onarpena dute estereotipoek gizartean?

Estereotipoak asko kritikatu dituzte beraien erruz desabantailan aurkitzen diren pertsonen eta giza taldeen, baina funtzio garrantzitsua betetzen dute, eta horregatik sortzen eta erabiltzen dira gizarte guztietan. Ondorioz, oso zaila da beraiek ezabatzea.

Lehenengo eta behin, estereotipoek *ekonomia kognitiboa* eskaintzen dutela esan behar da. Inguruetik jasotzen dugun informazioa sinplifikatu eta antolatzen digute. Talde baten sailkapena eta deskribapena errazten digute, taldeko kide guztiak ezagutzeko beharrik gabe. Beste batzuetan egoera zehatz bateko oroimena osatzen digute eta esperientzia pertsonalean inferentziak egiten laguntzen digute.

Niaren babes lana ere egiten dute, beste

persona edo talde batenganako daukagun kontrako portaera justifikatzeko erabiltzen ditugunean gure autoestimua zainduz. Esaterako, “ni langabezia egotearen errua lana kentzen diguten etorkinek daukate” esatean.

Hirugarrenik, *funtzio soziala* ere betetzen dute. Hau da, talde batek onartzen dituen estereotipoekin bat etorritik gero, pertsona hori hobeto onartuko da talde horretan. Adibidez, espainolak faszistak diren estereotipoaren bat etorritik gero, pertsona bati errazagoa suertatuko zaio talde independentista batean onartzea.

Beraz, nahiz eta talde eta pertsona batzuentzat ondorio negatiboak izan baztertuak izaten direlako, nahiz eta abantailan dauden pertsonentzat onuragarriak izan, orokorrean gizartea harkorra izaten da estereotipoen aurrean.

Zenbateko onarpena dute estereotipoek eskolan?

Formalki, eskolan ustezko “talde homogeneo” bateko pertsonen eskaini behar zitzaizen tratua bereziaren justifikaziotik, “berez heterogeneoa” den talde bati dagokion hezkuntza dibertsifikatuaren beharra onartzera pasa gara. Ondorioz, aldaketa hau bereganatuko lukeen marko komun berriak, eskolak bere barnean dituen pertsonen harremanekiko eta inguruarekiko dituen beharrik jaso beharko lituzke.

Beraz, lehenago pertsonen eta taldeen ezartzen zitzaizen ezaugarri “natural” haiek utzi eta pertsona subjektu banako eta bakartzat hartzen duen definiziora iritsi gara.

Aldaketa honek estereotipoen ideia krisian jarri du. Izan ere, orain arteko ideia horrek talde bateko kide guztiak berdina izango balira bezala tratatzen ditu, taldeak entitate errealek izango balira bezala ulertarazten ditu adostasun sozial baten ondorio besterik ez direnean, eta ez ditu pertsonak gizabanako bezala kontuan hartzen.

Hala ere, geletako egoera naturalen azterketa zehatza egiteko bagenu, aldaketa itxuraren azpian pentsamendu eta ekintza diskriminatzaileak daude konturatu ginateke. Ez dira beti kontzientek, baina zenbait estereotiporen eta aurreiritziren erabilera ezkutatu dute. Hauek nabaria goak dira ikasleengan jartzen diren espetatiba ezberdinen aurrean. Irakasleriak bere ikasleriarengan erabiltzen dituen estereotipo batzuk etorkizunean izango duten portaerari buruz egiten dituzten iragarpenetan eragin zuzena dute. Estereotipo horri dagokion portaerak espero ditu.

Beraz, estereotipoek beste pertsona bati buruz dugun irudian eta espektatibetan eragin dezakete. Era berean, gure portaerak ere (berari buruz dugun irudiak eraginda) bere portaeran eta beroni buruz egingo dugun interpretazioan eragina izango du, hasierako espektatibak indartzen saiatuko garelarik. Beste modu batera esanda, nik ikasle batengan portaera zehatz bat aurreikusten badut, irudi bat eta interakzio modu bat eratzeko ditut. Eta azkenean, portaera hori agertu egiten da. Nik, noski, susmo justifikatu bezala interpretatuko dut, eta ez zeharkako eskuhartze baten ondorio bezala.

Zein dira eskolan gehien transmititzen eta erreproduzitzen diren estereotipoak?

Eskola ez da gizartean sortzen diren estereotipoen eraginetik at geratzen. Beraz, beste testuingurutan dauden edozein estereotipo transmiti edo birproduzi dezake. Beste batzuk ere, sor ditzake, adibidez, eskola porrota, dislexikoa, laguntza behar duena eta abar.

Bestalde, ez litzateke justua izango zentrotan eta hezkuntza administratibotik egiten ari den esfortzu garrantzitsua ez errekonozitzea. Aukera ezberdintasunak eta sexua, arraza, sinesmen erlijioso, gaitasun eta abarregatik egiten den diskriminazioa zuzentzeko esfortzu garrantzitsuak egiten ari dira.

Estereotipo ezberdinak daudela komentatu digu lehen, baina genero estereotipoetan zentratu nahi dugu orain. Hasteko, genero estereotipoak zer direla esango zenuke?

Estereotipo sozial mota bat direla esango nuke. Gure gizartean gizon eta emakumeen artean dauden ezaugarri desberdinei ez biologikoak - buruz dauden sinesmen adostuak dira. Beraz, eduki espezifiko bat daukate, baina beste estereotipoen erakuntza eta erabilera prozesuan parte hartzen dute.

Nolakoak dira berauen edukia?

Estereotipo hauen edukiarik dagoenez, nahiz eta gure gizartean gizon eta emakumeek duten lekua eta egoera erreala eboluzionatuz joan, oraindik oso orokortua dagoen iritzi bat badago -kulturaz gaineko adostasun batek berretsia-: zenbait bereizgarri, interes, balore eta rol sexu bati lotuago daudela besteari baino. Estereotipo femeninoa ugalketarekin, pribatu-etxekoarekin eta herri-adierazkortasunarekin lotuta dagoen bitartean, talde maskulinoa pro-



“*Estereotipoen hausnarketa ikastetxean egin behar da, kontzientzia kolektiboa hartuz. Irakasle batzuren kontzientzia indibiduala ez da nahikoa*”

dukzioarekin, publikoarekin eta eragile-instrumentalarekin uztartzen da.

Nolako eragina dute gizakion bizitzan?

Pertsona bakoitza berari dagokion genero estereotipoa ikasiz joaten da bere garapenean zehar. Identifikazio eta imitazio prozesu bat jarraitzen du eta honen bidez lehenengo pertsonen sexua identifikatzen ikasten du. Gero bere sexua eta generoaren iraupena. Eta hirugarrenik, generoaren rola identifikatzen ikasten du, gero bere gurasoen portaerak eta ezaugarriak, gero sexu bakoitzari zein joko eta ekintza dagozkion eta azkenik gizon-emakumeak zein nortasun ezaugarrik bereizten dituzten.

Teoria progresistaren arabera, emakumea egitura sozial, bidegabe eta zapaltzailearen biktima da. Teoria liberalak emakumearen berdintasun eskubidea aldarrikatzen du gizaki bezala eta bere berezitasunak galdu gabe. Teoria hauen ondotik argumentu bat sortzen da: genero estereotipoen ikasketak prozesu bat dagoela. Prozesu honetan, gizarteko faktore kultural komunak eragina dute, baina hurbileko inguru soziala garrantzitsuagoa da, hots, familiaren eta eskolaren eragina.

Ikasketak prozesu honetan eskolak modu ezberdinez eragingo du ikasleriak genero estereotipoak era batera edo bestera ikasketo garaian. Eragina du eredu maskulino eta femeninoak erakusteko moduak, erabiltzen diren joko eta jostailuek, hizkuntzaren erabilera sexistak, portaera konkretu batzuei ezartzen zaien sariak edo zigorrak...

Nortzu dira estereotipo hauen igorleak?

Lehen esan dugun bezala, irakasleria izan daiteke bere espektatibekin, bere portaerarekin, sariarekin eta zigorrarekin. Baita pertsona heldu bezala ematen duen irudiarekin ere, egiten duenarekin eta egiten duen moduarekin, pentsatzen duenarekin eta ikastetxean hartzen dituen erantzukizunekin. Era berean, liburuetan agertzen diren eredu maskulino eta femeninoak ere igorleak izan daitezke. Mundua sinbolizatzen eta zenbait gaitasun garatzeko erabiltzen diren jostailuak eta jokoak ere bai. Eta harreman komunikatiboak eta didaktikoak kutsatzen dituen hizkuntza sexista ere igorle izan daiteke.

Zein da eskolaren funtzioa estereotipo hauen aurrean: erreproduzitzea, baztertzea ala ezabatzea?

Eskolak genero estereotipoak erreprodu-

zitzen baldin baditu, bere ikasleria osoak jasaten duen aukera desberdintasuna bultzatzen ari da, sexu jakin batekin jaiotzeagatik soilik. Nahiz eta talde femeninoa izan aukera akademiko-profesional gutxiago dituen sozialki, talde maskulinoa ere estereotipoak ezarritako aukerak hartzera behartuta dago, bere askatasuna mugatzen zaiolarik.

Beraz, nire iritziz, eskolak, esplizitoki aldarrikatzen duen bezala, ikasleriak bere ingurune ezberdinekin dituen erlazioen ezaguera esperientziakoa berkontzeptualizatu nahi badu, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna mantetzen duen eza-guerasubjektibo eta interesatuaren ondorena diren estereotipoak baztertzeko konpreme-zua hartu beharko du derrigorrez.

Bere funtzioa ezabatzea baldin bada, nola lagun dezake edo lagundu behar du eskolak genero estereotipoak kentzen?

Orokorrean, diskriminazio negatiboko egoerak aztertzen eta ekiditen konprometitu behar du, egoera hauek hezitzen dituen pertsonen garapen maximoa oztopatzen dutelako. Era berean, egoera hauekin topo egitean, irtenbideak bilatu behar ditu. Horretarako aukera berdintasuna lagundu behar du, estereotipatutako taldeen arteko elkarbizitza bultzatu (kasu honetan talde maskulino eta femeninoaren artekoa) eta talde bien parte hartzea bultzatu erantzukizun maila ezberdinetan eta erabakiak hartzerakoan. Harremanarekin, elkarlana-rekin eta elkarrekiko menpekotasun horrekin apur daitezke talde bakoitzak bere taldeaz eta beste pertsonetaz dituen irudi estereotipatuak.

Aldi berean, eskolak hezkuntzaren bidez estereotipoen ideia sinpleak gainditzeko konpromisoa hartu behar du. Ez da nahiko esperientziaren bidez estereotipoak faltsuak izan daitezkeela irakastea. Estereotipoak ikasketak eta hausnarketa gai izan behar dute ikasleek nola funtzionatzen duten eta zein eginkizun betetzen duten ezagut dezaten. Horrela, hiritar bezala bere kontzientzia izango du eta egoera diskriminatzaileen aurrean defendatzeko gai izango da.

Hala ere, sinplea dirudien arren, konplexua da praktikara eramatea, ikastetxe bakoitzeko errealitatea eta estereotipo hauek ezabatzeko konpromisoa oso ezberdinak direlako. Hezkuntza publiko misto-aren kasuan ere, hezkidetzaz hitz egiten da, eta dena lortu dela dirudi, ez dagoela diskriminaziorik. Baina arretaz aztertuz gero,

modu ezkutu batean oraindik estereotipoak hor daudela konturatzen gara.

Zein dira ezabaketa honetan aurki daitezkeen zailtasunak?

Lehenengo eta behin, jatorria bera, genero estereotipoak unibertsalak direlako. Bestalde, bere izaera iraunkorra, estereotipo hauek gizaki guztiengan dutelako eragina bizitzan zehar. Askotan, gainera, jaioren jakin aurretik, ekografian neska edo mutila den jakin ondoren, espektatiba desberdinak sortzen zaizkie gurasoei.

Bestetik, genero estereotipoak aurkotasunarekin definitzen dira, osagarriak kontsideratzen dira eta hierarkizatuta daude. Hierarkizazio hau aldatzea da zailena. Kultura guztietan talde maskulinoarekin lotutako ezaguarriek, gaitasunek, interesek, baloreek, espektatibek, rolek eta abarrek prestigio eta onspen soziokultural handiagoa dute. Horregatik saiatzen da talde femeninoa talde maskulinoaren portaeretara hurbiltzen, onarpen sozial handiagoa izateko.

Bestalde, eta paradoxikoa dirudien arren, gure ikastetxe mistoetan neska-mutilei aukera berdinak emateak eta dokumentu ofizialetan zeharlerro bezala hezkidetzak diskurtsoa ezartzeak eragozpen bat du: dena lortua dagoela pentsatzera eramane gaitzake eta berdintasunaren aldeko diskurtso errebindikatiboak deslegitimatu dituzte ezberdintasunak onartuz.

Nolakoa izan beharko luke irakasleonek eta hezitzaileek portaerak? Zer egin behar dugu?

Hezitzaileek norberak dauzkagun estereotipoen eta aurreiritzien gainean hausnartu behar dugu kontzienteki edo inkontzienteki, jarrera diskriminatzailetan bihurtu ez daitezkeen. Baina hausnarketa hau ikastetxean egin behar da, beste irakasleekin batera, gurasoekin batera eta ikasleriarekin batera, hots, kontzientzia kolektiboa hartuz. Irakasle batzuen kontzientzia indibiduala ez da nahikoa, analisiaren eta aldaketaren konpromisoa ez zabaltzeaz gain, kontrako eragina sortzen baitu.

Sexuen arteko aukera berdintasuna curriculumean zeharlerro bezala sartzeak kontzeptualki zentzua baldin badu ere, praktikan horrek ez duela bere garapena bermatzen ikusten ari gara. Irakasle bakoitzak curriculumeko ikasgai bertikalak garatzeari ematen dio garrantzia, zeharlerroekin batera lortu behar dituen helburuak eta edukia planifikatu gabe. Ikasleak eduki aldetik maila ona lor dezake beste eza-

gutzetan, baina era berean jarrera sexistak eduki. Horregatik, hezkidetzak zeharlerroetan duen lekua gainditzen du eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektu osoa busti behar du.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua egin-kizun handia eta epe luzekoa denez, berau garatu bitartean eskola komunitateko sektore ezberdinen artean neurri txikiak hartzen joan gaitzake.

Zein izan daitezke neurri horiek?

Asko izan daitezke, baina batzuk aipatzearren:

- Gu nolakoak garen ikasi ezagutza eta informazio errealekin, indibidualagoarekin eta ez hain orokorarekin. Baita ere gure zentroan edozein estereotipo, aurreiritzi edo diskriminazio negatiboren "dianan" dauden pertsonak nolakoak diren jakin.

- Jarrera ez estereotipatuaren garapena bultzatu. Nola? Ikasketa erabat kontzeptualetan garapen fisikoa eta emozionala barneratuz. Arlo honetan garrantzi handia dauka sexualitatea ikasgai bezala ezartzeak, baina ez ugalketa eta kontrazepzioaren alderdi teknikoetan soilik, baina bere alderdi afektiboetan ere.

- Ikasgai bakoitzean emakumeen eta etxeko mundu pribatuaren presentzia bilatu apropos -Literaturan, Historian...- emakumearen papera duintzeko eta bere funtzioen garrantzia azpimarratzeko. Honek arlo publikoa eta pribatua garapen pertsonalerako espazio kontsideratzea suposatzen du. Mundu pribatua gaitasunak eta erantzukizunak garatzeko espazio bezala aurkez daiteke. Adibidez, indar zentrifugoa lehorgailuarekin esplikatu daiteke edota lurrin-makina plantzarekin.

- Goi mailetan kontzientzia piztu beharko genuke eskolan ezagutzak nola transmititzen diren eta ezagutza zientifikoa nola eratzen den jakiteko. Arrazoia eta intuizioa maila berean kokatu beharko liriteke ezagutza zientifikoaren barruan, giza mundua eta mundu teknologikoa aukera profesional bezala aurkeztuz. Era berean komunikabide batzuk, zineak, publizitateak... duten eduki sexistaz ere kontzientzia piztu behar da.

- Ahozkotasunean zein dokumentuetan hizkuntza ez sexista erabili behar dugu: genero maskulinoa eta femeninoa zuzen erabiliz, emakumeak ikustea eragozten duen maskulino generikoaren erabilera ezabatuz, kontzeptu generikoak erabiliz eta abar.

- Eskolaratze prozesuan ikasleriak askotan hartu behar izaten dituzte erabakiak: zein

proiektu egin, zein ikasgai aukeratu, norekin egin lan bat, zein ikasketa egin... Erabaki hauek ongi hartzen ez badira bere bizitza itzulerarik gabeko bide estereotipatu batetik abia daiteke. Hori dela eta, tutoretzari eta orientatzaileari garrantzi handia eman behar zaie estereotipoen mugak gainditzen dituen nortasun pertsonala garatzeko, eta autoestimua eta konfidantza garatzeko. Horrela, ikasleria guztiak hartzen dituen erabaki pertsonalak, akademiakoak eta profesionalak bere gaitasun eta interesen arabera hartuko ditu, eta ez dira generoen espektatibek mugatuak egongo.

Familiak zein inplikazio maila edukiko behar dute gai honetan?

Familiak eragin izugarria du genero estereotipoen ikasketa prozesuan. Ez dugu ahaztu behar ikasleriak gurasoak hartzen dituela identifikatzeko eredu bezala. Eta gurasoek ere, semea edo alaba jaioko dela jakiten duten unetik etorkizuneko espektatibak egiten hasten dira haur horrekiko, eta espektatiba hauek estereotipoz josiak egoten dira. Seme-alabei ezartzen zaizkien zigor eta sariak ere espektatiba hauekin lotuta egoten dira. Gainera, familiaren barruan garatzen da etxeko zereginekin lotutako ikasketa eta erantzukizuna.

Ez luke asko balioko eskolan estereotipoak ezabatzeko esfortzua egiteak familian ez bada ezer egiten edo berauek indartzen jarraitzen bada. Beharrezkoa da komunikazio bideak sortzea irakasleria eta familiaren artean informatzeko, prestatzeko eta kolaboratzeko. Horretarako egokiak izan daitezke gurasoen eskolak, gurasoen parte hartzea Eskola Kontseiluan, tutorea eta familiaren arteko erlazioa eta abar.

Genero estereotipoen ezabaketa eskolari soilik dagokion lana da ala gizarte osoari?

Genero estereotipoek funtzio sozialak betetzen dituzte. Gizarteak maskulinoaren osagarri den estereotipo femeninoa sortu du oreka soziala mantentzeko. Beraz, aldaketa gertatzen bada, hau da, bietako bat hausten bada, nahitaez antolaketa sozial berri bat sortuko da. Orduan, instituzio sozial bakoitzaren zeregina arlo honetan osagarria dela kontuan hartuz, gizartearen eginbeharra dela uste dut bere egiturak eta antolaketa soziala aldatzen hastea eratzen hari garen emakume eta gizon berriari leku egiteko. Bestela, eskolak bakarrik ezin du estereotipoak ezabatzeko behar diren benetako egitura aldaketak egiteko botere nahikorik.

hik hasik

Zure harpidetza behar du



4.500 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.500 pezeta
Ipar Euskal Herria
180 libera

hik hasi

Euskal heziketarako
aldizkaria
Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160
LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA
Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

36

Ikastegietan
zer-nolako liburutegiak?

Joana Albret bibliotekonomia mintegia

Ikastegietan zer-nolako liburutegiak?



Xan GOENAGA

Xalbador kolegioko dokumentalista
eta Joana Albret mintegiko partaidea

1 998ko maiatzaren 28ko deialdian Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bideratu "Programa de actividades complementarias y extraescolares" deituriko txostenak gure harridura eta kexua piztu ditu. Alabaina, eskola munduan ere, liburutegia bigarren mailako gauza bat bezala agertzen da eta horretan egin daitezkeen ekintzak ez dira ikas-prozesuaren barne kontsideratzen, baizik eta gainerako aktibitate gisa, eskolatik

kanpokoak. Halaber, liburutegiko arduradunaren hautaketa ez da toki horren kudeatzeko gaitasunetan finkatzen, baizik eta pertsonaren gaitasun ezean "que por no disponer de perfil lingüístico acreditado o por otros motivos...".

Botere publikoek gure lanbidearendako erakusten duten mesprezuak mintzen gaitu, baina oroz gaineratik, agerian uzten du Hezkuntza Sailaren politikarik eza, xederik eza, ikastegietan liburutegiak eta dokumentuekiko jarduerak behar bezala garatzeko ikas-prozesuan.

Gure samina gaindituz eta gure ikuspegi profesionala ekarriz, gure txostena

eskaini nahi dugu ondoko orrialdeetan, ikasle eta irakasleen onerako gerta dadin, administrazioeko eta ikastegiako zuzendariei lagungarri izan dakien, benetako liburutegia, informazio eta dokumentazio zerbitzua eskainiko dituen ikastegi proiektuak bideratzeko orduan!

Txosten honek Bigarren Hezkuntzako ikastegiak baizik ez ditu aipatzen, baina erran gabe doa hemen aholkatzen eta aldarrikatzen diren norabideak eta eginbeharrak, egokitzuz, Lehen Hezkuntzako eskoletan ere aplikatu daitezkeela.

Nolako liburutegia

Ikastegian gune garrantzitsua ukanen duen liburutegia

Gaur egun, ikastegi batean liburutegia badelarik, gela bat da, gehienetan zokoratua eta tokian tokiko ahalen ara-

bera, guti edo aski, liburuz hornitua. Gela horren erabilera, borondate oneko irakasleen interesen arabera da.

Eraiki nahi dugun liburutegia Bigarren Hezkuntzako ikastegi orotan muntatu behar da eta ahal den guzietan ikastegiaren erdigunean kokatu. Alabaina, toki hori ikastegiko partaide guzien zerbitzurako izanen da. Ikasle, irakasle eta baita administrazio langileek ere, norberak behar duen informazioa, egokia eta sailkatua atzemanen dute bertan.

Hezkuntza egitasmoaren barne eta ardatz

Irakaskuntzaren planteamendu pedagogikoa berritzen ari da, ikasleek ez dute soilik irakasleen jakintza iturritik edan behar, ikasketen edukia bezain garrantzitsua da gaiaz jabetzeko erabiltzen den moldea. Beste era batez erranik: irakaslea lagun eta gidari, ikasleek berek urratu behar lukete jakintzaren jabetzeko bidea, norberak bere jakintza eraiki behar luke.

Ildo horri jarraituz, gaietan (Historia, Geografia, Zientzia, Hizkuntza...) premiatsua da ikasleak jakin dezan informazio edo dokumentu bat bilatzen, aurkitzen, hautatzen eta erabiltzen. Gaitasun horiek ez dira bistakoak, lantze eta aritzearen bortxaz erdiesten dira. Gaietako ordutegietan astero, talde txikitik, ekitaldi batzuk eginen dira horretarako antolatu eta behar bezala hornitu liburutegian.

Liburutegia baino Dokumentazio eta Informazio Zentroa (gune eta euskarri anitzekoa)

Goiko lerroetan aipatu liburutegia ikastegiko partaide ezberdinei irekia izanen zaie (ikasle, irakasle, administrazio langile) eta zeregin franko bete beharko ditu. Horretarako gela handia erabiliko da, eta ahal den heinean, guneka antolatzeko eran, ekitaldi bakoitzak bere tokia ukan dezan.

Besteak beste, ondoko hauek aipatuko ditugu:

- Apal batzuk mailegatu diren liburuekin (elaberri, olerki, antzerki eta beste).

- Jakintza arloko liburuak (CDU edo Dewey sailkapen hamartarren sailkatuak) eta erabilienak (hiztegi, entziklopedia, gramatika, eskuliburu...) beste gune batean, mahai batzuen inguruan, talde txikika, dokumentalista edota irakaslearekin bertan lan egiteko.

- Prentsa eta aldizkarien gunea.

- Toki goxo bat (sofa bat edo bi) bertan irakurtzeko.

- Ikastegi eta Hezkuntza saileko lege-diari buruzko gunea.

- Informazio panelak (horietan ikastegiari buruzko informazioa agertuko da, baita eskualdeari buruzkoak, ekitaldi kulturalak, ikastaldiak eta beste).

- Artxibategia, iragan urteetako dokumentuak kontserbatzen dituen, sailkatuak, eskaeraren arabera erraz eskuratzeko eran.

- Ordenagailuak, erabiltzaileek liburutegiko fondoa kontsultatzeko eta ikertzeko.

- Euskarri ezberdinetako dokumentuak: mapak, irudiak, diapositibak, kasetak, diskak, CD-ROMak...

- Internetean konektatzeko postu bat ikasleek eta irakasleek informazioa liburutegitik kanpoko datu baseetan bilatzen ikas dezaten.

Liburu biltegi, mediateka, informazio bulego, ikasgela, hori dena eta gehiago ere izango da ikastegiko libu-

rutegia. Errealitate hau kontuan harturik eta beste eskualde batzuetan nagusitzen ari den terminoa hautatuz, Informazio eta Dokumentazio Zentroa deitzea proposatuko genuke.


Nolako langilea Kudeatzaile gaitua

Zentroak emanen dituen zerbitzuak ikusirik, ez da dudarik horren arduradunari prestaketa edo moldaketa egokia eskaini beharko zaiola. Hark, Zentroaren muntatzeko nahia eta kemena erakustez gain, zinezko gaitasunak beharko ditu kudeaketan eta animazioan. Liburuzaina baino, irakasle-dokumentalista bezala definituko da.

Pedagogoa eta animatzailea

Ikasle eta irakasleekin arituko denez gehienik, pedagogian ezagutza bereziak eskatuko zaizkio dokumentalistari, eta baita mailaka, irakasten diren gaietako programen edukiez jabetzea. Jardunaldi pedagogikoak (Zentroaren erabilpena, dokumentuen bilaketa, dokumentuekin lanegitea, bildu informazioarekin produkzio baten egitea...) talde txikika eginen dira gaiko irakaslearekin partzuergoan eta dokumentalistaren ardurapean.

Zentroak, ikasleen autonomia eta gaien arteko elkarlangintza baimenduko ditu egitasmo batzuk bideratuz eta



ondoko urratsak jarraikiz:

- Ikasle eta irakasleen artean gai baten hautaketa.

- Dokumentuen bilaketa euskarri ezberdinetan.

- Produktu baten gauzatzea eta honen aurkezpena klasean, ikastegian edo publiko zabalago baten aitzinean.

Dokumentalistak kulturgintza (irakurketa txapelketa, ipuin lehiaketa, prentsa astea...) bideratuko du ikastegi osoan tokiko posibilitateen arabera, inguruko beste partaideekin (Udal Liburutegia, eskualdeko elkarteak, enpresak, instituzioak...).

Bibliotekonomian teknikaria

Goian aipatu lan ugarien betetzeko, Zentroaren kudeaketa teknikoak, fondoaren berritzea eta aberastea badaezpada-ko ekintzak dira, gaitasun profesionalak edo formakuntza berezia eskatzen dituztenak. Hala nola, dokumentalisten zereginetan sartuko dira besteak beste dokumentuen katalogatzea, azterketa dokumentala, apaletako sailkapena, maileguen kudeaketa, informazioen aurkezpena eta banaketa. Lan horiek guztiak dokumentazio munduan egiten direneredu beretan egiten dira (AFNOR eta UNIMARC katalogatzeko, Dewey edo CDU sailkatzeko) ikasleek eskolan ikasitakoak kanpoan ere baliatzen (Udal Liburutegian, Unibertsitateko liburutegian edo beste liburutegietan).

Teknologia berrietan aditua

Gaurko egunean papera dokumentua gordetzeko euskarri bat besterik ez da beste anitzen artean. Horregatik, Zentroak euskarri berriak (ikus-entzunezkoak eta digitalak) bereganatu beharko ditu. Irakasleak eta ikasleak horiez baliatzen trebatu beharko dira eta beren burua prestatuko duten heinean, dokumentalista izanen da baliabide horien erakuslea.

Bestalde, informazio arloan gertatzen diren aldaketak ikusirik, Zentroa ezin daiteke luzaz bere fondo propioan muga. Interneten bidez mundu zabaleko informazio iturriak ireki behar die atea. Halaber, informazio harreman eskema berrian, informazio igorle ere bihurtu daiteke laster batean.

Hizkuntz eskakizuna ikastegiaren euskalduntze mailaren arabera, eta ahal bada aitzinatua

Definitu den bezala, Zentroa ikastegiaren barne bizitzaren gune garrantzitsuenetarikoa bat da, eta neurri berean kanpoarekiko harremanetan ikastegiaren promozionerako tresna. Horrela delarik, ez luke zentzurik hizkuntz arloan desfasean agertzea eta Zentroko langileak haren hizkuntz gaitasun ezean aukeratzea. Euskaldun, euskaldundu eta euskalduntzen ari diren Zentroetan bistan da dokumentalistak euskalduna

izan beharko duela eta sarraraziko dituen dokumentuak ahal bezainbat euskarazkoak izanen direla. Oraino erdaraz ari diren ikastegietan, aldiz, erdaldun bat har daiteke, baina konpromisu batekin: ikastegiak euskalduntzeko bidea jarraituko duelarik, hura ez dela azkena izanen.

Mugaz haraindian, frantses ereduan eman diren urratsak

"Centre de Documentation et d'information" edo CDI deitutako en historia laburra

Mendearren erdialdera arte, Bigarren Hezkuntzako ikastegietan, tokika eta gehienetan ikastegi handietan baizik, bi dokumentazio zerbitzu baziren:

- Bata ikasleen zerbitzurako: klaseko liburutegi txikiak (eleberri eta beste liburuak Letrako klaseetan, liburu espezializatuak Zientzia eta Historia-Geografia klaseetan).

- Bestea irakasleendako gaietako oinarrizko dokumentazioa, eskuliburuak eta ikus-entzunezko dokumentuak biltzen zituen.

Bata zein bestearen ardura, borondate oneko irakasleek egiten zuten eta diru abalen arabera berritzen eta aberasten.

1974an Hezkuntza Ministeritzak deliberatu zuen Informazio eta Dokumentazio Zentroak izan behar zirela Bigarren Hezkuntzako ikastegi guzietan. Ikasle eta irakasleen dokumentu zerbitzuak eta liburutegiak batu ziren gune berean, eta dokumentuak ez ezik, informazioak ere atzematen ziren bertan. Zentro horien kudeatzeko, irakasle tituludunak kontratatu ziren eta dokumentalista postuetan eman, oinarrizko formakuntza ikastaroa jarraitu ondoren.

1989an dokumentazio CAPESA sortzen da. Irakaskuntzan aritzeko zurtagiri honek Dokumentazioa, Historia, Matematika, Biologia edo beste gaien heinean ematen du. Orduetik hona CDIko postuen jabe izateko dokumentalistek CAPESdunak izan behar dute. CDIa ikastegiaren barne da osoki eta dokumentalista irakaslerian integratua.



Gaur egungo CDI eta dokumentalisten misioak

Bigarren Hezkuntzako ikastegi guziak behartuak dira CDI baten irekitzeaz eta diplomadun dokumentalista baten hartzea. Azken honi dokumentazioan irakasle titulua eta estatusa ezagutzen zaizkio. Honen lanak definituak dira lau ardatzetan:

- Irakasle gisa, ikasleei dokumentuen ikerketetan moldakuntza eskaintzea.
- Ikastegiaren ekimen pedagogikoan parte hartzea.
- Ikastegiari laguntzea kanpoko harremanetan.
- Informazio eta Dokumentazio multimedia zentroaren kudeatzea.

Hizkuntza, aldiz, beti arazo

Hizkuntza mailan, aldiz, Frantses Errepublikak ezagutu gabe ditu oraino bere lurraldean dauzkan hizkuntza gutituak. CDietan ez da nehongo obligazionerik dokumentuak tokiko hizkuntzaz edukitzeko, eta are gutiago dokumentalista eskualdeko hiztuna izaiteko.

Mugaz haraindian, euskal eskola eta eskola elebiduntan egiten dena

Seaska federakuntzako ikastegiak

Lehen Mailako ikastolei jarraipena emanez, Seaskak eraiki Bigarren Hezkuntzako Xalbador kolegioak badauka bere Informazio eta Dokumentazio Zentroa, eta frantses estatuko Hezkuntza Nazionalak ordaintzen du dokumentalistaren postua denbora osoz. Beste bi ikastegietan, aldiz, Bernat Etxepare lizeoan (DBHO eta Batxilegoa) eta Larzabal kolegioan (DBH), Informazio eta Dokumentazio Zentroak eraiki gabe dira oraino eta dokumentazio bilketa eta zerbitzua, pedagogia taldeko langile batek bere gain hartzen du arduraldi mugatu batez. Ikastegi horien garapenean pentsatua da laster batean (datorren ikasturterako agian) Zentroaren muntatzea bietan eta dokumentalista bana hartzea arduraldi osoz.

Dokumentalista eta Zentro horien

zereginak eta betekizunak 1. eta 2. puntuetan aipatu ildoan kokatzen dira osoki. Hizkuntzari begira (klasean bezala funtsean), nahiz eta dokumentu franko erdarazkoak diren, lehenasuna ematen zaio beti euskarazkoen biltzeari eta Zentroko ekitaldi guziak euskara hutsez egiten dira.

Beste ikastegietan

Sare publikoak eta sare pribatuak muntatu klase elebidunak (B ereduak), ikastegi frantsesetan txertatuak dira. Ikastegi horietako CDietan euskarazko dokumentuak tokiko dokumentalista eta zuzendaritzaren arabera sartzen dira. Euskarazko dokumentazio eskasaren parte batean betetzeko, duela hiru urte, Hezkuntza Nazionalak publiko ikastegi bakoitzari diru kopuru bat eskaini zion, lekuko euskara irakasleak hutsunea bete dezan. Sare pribatukoek ere aurten zerbait ukan dute.

Bertzalde, dokumentalistaren hizkuntz gaitasun eskasez, CDiko ekintza nagusiak erdaraz egiten dira, euskara irakasleak bete behar dituelarik animazio hutsuneak eta baita laguntza ekarri ere dokumentazioaren osatzeko orduan.

Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua, Joana Albret Mintegia

Euskaraz funtzionatzeko zentro batek dokumentalista euskalduna eta ahal bezainbat euskarazko dokumentuak behar ditu. Frantses Estatuko Hezkuntza Nazionalak ez du ez bata ez bestea eskaintzen. Eskasia horri erantzuteko sortu da IKAS Euskal Pedagogia Zerbitzua. Honek informazioa eta euskarazko dokumentuak eskaintzen dizkie irakasle eta CDietako dokumentalisteri. Euskarri ezberdineko laguntzaren biltzeaz eta eskaintzeaz gain, IKASek euskal materialaren sortzea ere bere gain hartzen du.

Bestalde, zentroaren kudeatzeko tresna bereziak behar dira: dokumentuen katalogatzeko hiztegi berezitua, ikerketen egiteko thesaurusa, maileguren egiteko logiziela... Ezinbesteko tresna horien euskaratzen entseatzeko dira Ikas



eta Xalbador Kolegioa. Baina maila horretan urrats garrantzitsuak emanen dira instituzioek dokumentazio eta bibliotekonomia gaia behar bezala jorratuko dutelarik, ahalbide egokienak eskainiz. Horien eskatzeko, aldarrikatzeko sortu da Joana Albret Mintegia. Eskakizun hutsean gelditu ordez, anartean, Mintegiak biltzen dituen zazpi probintzietako dokumentalistak lan praktikoari lotu zaizkio, euskaraz katalogatzeko tresnak sortzen, beharrak agertzen, proposamenak egiten, beste- en artean, txosten hau lekuko.

Ondorioa

Egitasmo horren betetzeko botere publikoek beren jarrera aldatu beharko lukete. Diseinatu gabeko liburutegia, gaur egungo irakaskuntzari egokitu ez diren pertsonentzat pentsatua, guztiz baztertu beharko lukete eta haren ordez, profesional batek kudeatuko duen ikasle eta irakasleendako benetako Informazio eta Dokumentazio Zentroa eskaini. Txosten horrekin konbentzitzen baditugu, gure helburua erdietsiko dugu.

Joana Albret

Bibliotekonomia Mintegia

Joana Albret
Bibliotekonomia
Mintegia Euskal Herri osoko dokumentalistek sortu zuten mintegia da. 1997ko urriaren 2an sortu zen helburu garbi batekin: euskararen erabilera normaltzea Euskal Herriko liburutegi eta dokumentazio zentroetan. Normalizazio hori maila guztietan garatu beharrekoa da, baina bereziki katalogazioarekin hasi dira momentuz.

Helburu hau betetzeko, mintegiak bost eginkizun nagusi finkatu zituen bere sorreran:

1- Euskal Herriko bibliotekari eta dokumentalisten bilgune eta gogoetarako plataforma izan.

2- Euskararen egoera eta arazoei buruz informazioa jaso, aztertu, arazo nagusiak diagnostikatu eta irtenbideak proposatu eta landu.

3- Bereziki katalogazioari buruzko arazo teknikoak aztertu eta irtenbideak proposatu eta landu.

4- Herri Aginteekin harremanak izan, elkarlaguntza jator baten bitartez arazoak ezagutarazi eta proposamenak bideratzeko.

5- Gizarte mailan biblioteka eta dokumentazio zentroen ezagutza bultzatu, bereziki euskararekin lotutako arazoei dagokienez.

Orain arteko lana bi ildotan banatu dela esan liteke:

- Alde batetik, eskakizun orokorrak eta politikoak egiten dizkiete instituzioei Euskal Liburutegi Nazionala

aldarrikatuz eta hori aurrera eramateko pausoak eman ditzaten eskatuz. Alderdi politikoekin ere harremanak izan dituzte eta EAEko gobernu aldatetarekin gauzak aldatuko ote diren esperantza dute. Dena dela, oraindik ez dela mugimendu handirik antzeman diote mintegiko partaideek. Zeregin hori instituzioei dagokiela pentsatzen dute eta eskakizun horiek egiten jarraituko dute.

- Bestetik, lan praktikoak egiten dihardute, oraingo katalogazioaren inguruan. Orain arte zentro gehienetan erdaraz katalogatzen zela ohartu ziren eta horrela ezin zela jarraitu pentsatu zuten, euskaraz egin behar zela. Horretarako irizpide eta zerrendak euskaratu gabe zeudela ikusi zuten, hots, bibliotekonomiako hizkuntza berezitua ez zegoela euskaraz. Beraz, liburuaren katalogazioa egiteko konpromisoa hartu zuten mintegiko partaideek.

Horrela, lehenik liburuaren deskribapen fisikoa egin dute. Bertan liburuak deskribatzeko erabiltzen diren irizpideak euskaratu dituzte: tamaina, azala, neurria eta horrelako datuak biltzen dira eta hori guztia euskaratu beharra ikusi dute. Zerrenda honetan euskaraz erabiltzeko hitz amankomunak proposatzen dituzte. Lan hau bukatua daukate eta laster argitaratuko dute.

Bestalde, eta bigarren lan bezala, gaien deskribapenarekin hasiko dira laster. Liburu bat liburutegian sartu ondoren, gai baten inguruan kokatu behar da eta horretarako zerrenda ofizialak daude. Bizkaitarrek lehendik ere eginga zeukaten estatu espainiarrean erabiltzen zen zerrendaren itzulpena, baina zaharkitua gelditu da eta hori berritzeko asmoa dute orain.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak lan hori bera egiteko talde bat eratu du eta horren esku utzi dute eginkizun hori, bi taldek ez baitute lan bera egingo.

Azkenik, ohar tekniko erabilien zerrenda ere euskaratzeko asmoa dute, hots, euskaraz kodifikatuko dituzte. Ohar hauek liburuaren ale kopurua, hondatutako liburuak, orri solteak dituzten liburuak eta abar kodifikatzeko erabiltzen dira.

Lan hauek egiteko 31 partaide dade mintegian. Leku ezberdinetan egiten dute lan (udal liburutegietan, dokumentazio zentroetan, eskolan, unibertsitatean eta abar) baina denak konpromiso batek bultzata elkartu dira, lehen aipatu bezala.

Mintegia hilean behin biltzen da bilera bat egiteko. Normalean 12-15 kide biltzen dira eta hauek zuzenean, aktiboki parte hartzen dute. Gainontzekoek, bilerara joan ezin badute ere, aktak jasotzen dituzte eta mintegiarren lanaren berri jasotzen dute. Momentuz partaide gehienak gipuzkoarrak baldin badira ere, euren asmoa zabaltzea da, Iparraldeko, Nafarroako eta gainontzeko herrialdeetako jendea ere hurbiltzea oreka gehiago izan dezan mintegiak.

Mintegi honetan parte hartzeko prest baldin bazaude edo partaideekin harremanetan jarri nahi baduzu, hona hemen kontaktua:

Imanol Irizar

Tel: 943 41 26 04

Faxa: 943 41 26 01

Posta elektronikoa:

i-irizar@ej.gv.es

Ziburuko antxetaren hegalkadak zabalduz

Ziburuko kolegioari laguntza emateko kanpaina orain dela bi hilabete hasi zen eta oraindik ere aurrera darrai. Joan den irailean ireki zen Seaskaren bigarren kolegio hau eta aurrera jarraitzeko laguntza beharrea dago. Kanpaina honekin antxetaren 5.000 hegalkada saldu nahi dituzte.

Ziburuko kolegioaren ibilbidea ikasturte honetan hasi da. Bi urterako egoitza bat lortu zuten gurasoek eta hor ekin diote momentuz. Gurasoek argi dute Kanboko Xalbador kolegioaz gain, iparraldeko kostaldean kolegio bat beharrezkoa dela 11 urtetik 15 urtera bitarteko gazteentzat. Aurten 75 ikasle dabilta bertan, baina datoren ikasturteak aurrera kopuru horrek gora egingo duela argi dute. 124 ikasle espero dituzte hurrengo ikasturtearen sartzean, eta 2000-2001. ikasturterako 185era igoko dela iragartzen dute. Izan ere, Iparraldeko ikastolarik handienak kostaldean daude eta bertako ikasleak Ziburura joko dute Bigarren Mailako ikasketak egitera. Horregatik, orain dauden egoitzan bi urterako alokairua dute, eta gurasoen asmoa egoera honi aterabide iraunkorra bila-

tzea da, hots, beraien eskutan egongo den egoitza izatea. Horrek bultzatzen ditu antxetaren kanpaina abian jartzera, Ziburun euskal kolegio bat finkatzeko nahiak, alegia.

Ikasturte honetan Ziburuko Piarres Larzabal kolegiara joaten diren ikasleak inguruko herrietatik hurbiltzen dira: Ziburu, Donibane-Lohizune, Getaria, Bidarte, Ahetze, Urruña, Hendaia, Azkaine, Biriatu, Sara, Senpere eta Ainhoatik. Ikasle hauek Bai-nako Lizeora joan ahal izango dira ondoren.

Ibilbide hori guztia posible izan dadin jarri dute abian Ziburuko kolegioko gurasoek eta bultzatzaileek antxetaren kanpaina. Helburua milioi

bat libera (25 milioi pezeta) lortzea da, diru horrekin kolegioan egingen diren obrak eta alokairua ordaintzeko, eta horrela beraien etorkizuna bermatzeko. Diru hori lortzeko urtean zehar ekitaldi ezberdinak egiteaz gain, 5.000 hegalkada saltzeko asmoa dute. Hegalkada bakoitza 200 liberatan (5.000 pezeta) saltzen da. Hauek erosteko bonoak banatu dituzte Euskal Herri osoan. Horrekin batera fitxak, informazio orriak eta abar ere zabaldu dituzte. Interneterako ere web orri bat prestatzen ari dira, kanpainari buruzko informazioa aurkitu ahal izango delarik lau hizkuntzatan. Bide hau erabiliz Hego Ameriketako euskal etxe, elkarte eta abarretara ere iritsi nahi dute.



Uztaritze eta Sohuta ere laguntza premian

Ziburun ezezik, Uztaritze eta Solutan ere laguntza beharrean daude ikastolei eusteko. Uztaritzen Urkila elkarte ikastola berria aldarrikatzen dabil, baina Bernard Auroy herriko auzapezak ez dio erantzun onik ematen. Ikastola berria ez da Herriko Etxearen xedetan sartzen, nahiz eta duela hiru hilabete bestelako jarrera azaldu. Ia ehun ikasle izan arren, oraindik egoitza egokirik ez dute.

Solutako Eperra ikastolan, berriz, egoitza berria dute, baina berau mantentzeko arazo ekonomikoak dituzte. 1997ko irailean estreinatu zen ikastola berria kanpaina baten ondorioz lortutako diruaz mailegu bat eskatu ondoren. Egun 6.000 libera (150.000 pezeta) ordaindu behar dizkiote bankuari hilero eta horretarako jendearen laguntza behar dute. Hilero 50 libera (1.250 pezeta) emanen lukeen 150 pertsona inguru behar dituzte. Hori lortzeko abiatu du kanpaina Hazia elkarteak, apirillean bukatuko dena. Era berean, botere publikoengana ere jotzeko asmoa dute dirulaguntza publikoa erdiesteko.

Kanpaina hau, dirua lortzeko erabiltzeaz gain, informazioa zabaltzeko ere baliatu nahi dute. Euskara irakastea beharrezkoa dela ikustarazi nahi dute, eta horretarako ikastolen beharra dagoela.



Laguntza Seaskarentzat eta euskararentzat

Kanpaina hauekin Ziburuko kolegiari eta Eperra ikastolari lagundu nahi zaie, baina baita Seaskari eta Iparraldeko euskarari ere. Iparraldean gutxi gora behera 250.000 biztanle bizi dira gaur egun, baina hauetariko gutxi dira euskaldunak. SIADECOk 1996. urtean egindako txostenaren arabera, eta 212.400 biztanleko kopurua kontuan hartuta, biztanleriaren %26,4ak euskara bakarrik erabiltzen du, %68,5ak frantsesa eta %5,2ak biak. Inkestaren arabera, euskaldunen %69ak 50 eta 65 urte baino gehiago du, eta gazteei dagokienez, 3 eta 24 urteko gazteen %17ak soilik erabiltzen du euskara. Gaur egun, ikasleen %15ak segitzen ditu bere ikasketak euskaraz.

Datu hauek ikusita, agerian dago Iparraldean euskararen irakaskuntzaren

egiturak indartu eta lagundu egin behar direla. Seaska, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa, gaur egun hiru probintzietako 19 ikastolek, bi kolegiok eta lizeo batek osatzen dute. Orota 98/99 ikasturtean 1.705 ikasle eta 140 langile inguru biltzen ditu. Azpimarratzekoa da ikasleen gorakada %4koa izan dela.

Emaitza hauek lortzeko Seaskak traba anitz gainditu behar izan ditu eta beti lortu du aurrera egitea. Hezkuntza Nazionalarekin 1993. urtean izenpeturiko azken akordioaren ondorioz, irakaskuntza sarea erakunde publiko eta administrazioaren gain geratu zen. Ikastolak ezagutuak izan ziren eta ikasleak ere ikasle gisa onartu ziren.

Baina hala ere, akordio honek ez ditu Seaskaren arazo guztiak konpondu:

- Administrazioak ez du Seaskaren berezko egitura baten beharra ikusten eta ondorioz, ematen duen laguntza ekonomikoa arunt ttipia da.

- Iparraldean ikastetxeen eraikuntza tokiko administrazioaren gain dago. Beraz, administrazioaren betebeharra da ikastetxeei beharrezkoak diren lokalak ematea. Zentzu honetan, aurrerapausoak eman dira, baina oraindik ere zailtasun handiak daude.

- Iparraldean euskarak ez du estatutu ofizialik. Ondorioz, ikastoletako ikasleek 15 urtez euskaraz ikasi ondoren, baxoa frantsesez pasa behar dute.

Datu hauek ikusirik, egoera ezaguturik eta emaitzak jasorik, garbi dago etsi gabe aintzina jarraitu behar dela. Bakoitzak jakingo du nola lagun diezaiokeen Ziburuko antxetari, Seaskari, eta oro har, Iparraldeko euskarazko irakaskuntzari.

5000 HEGALKADAREN LAGUNTZA BEHAR DUGU, ZIBURUN EUSKAL KOLEGIOA FINKATZEKO !



Hegaldak zaituz Euskal herri osoan gairadi eta arraiatu lagunei, Ziburun finkatu nahi dugula iparralde-ikasleentzako gaitzak hain beharrezkoak diren euskal kolegioa.

KONTSULTA TXOKOA

Zuen kezka
planteatzeko eta
zuk ere bestean
zalantzak
argitzeko lekua
duzu.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



DENON ERANTZUNA?

Berriak

Bidal itzazu zure galderak edo zalantzak
irakasle euskaldunon aldizkarira

MARTXOA



V. On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketa

Urnietako Udaleko Euskara Batzordeak Ipuin Lehiaketa antolatu du euskaltzale sutsu izan zen On Manuel Antonio Antiaren omenez, aurtengoa V. edizioa duelarik. Ipuin lehiaketa honetan parte hartzeko kontuan hartu beharreko arauak hauek dira:

- Ipuinak euskaraz idatzi beharko dira, eta beste lehiaketaren batean sariarik jaso ez dutenak, argitara eman gabeak eta gai libreak izango dira

- Lehiakide bakoitzak gehienez lan bat aurkez dezake.

- Bi maila bereiztu dira:

1- 6 urtez beheragoko neska-mutilei zuzendua, beti ere herrikoak edota herriko ikastetxeren bateko ikasleak izan beharko dutelarik. Hauen lanaren luzerak gutxienez hiru orritakoa eta gehienez seikoa izan behar du.

2- Herriko nahiz kanpoko idazle helduentzat. Maila honetako lanak gutxienez zortzi orri eta gehienez

hogei izan beharko dituzte.

- Sariak hauek izango dira:

16 urtetik beherako mailan:

1. saria: irabazle eta pertsona heldu batentzako bidaiari hiruzpalau egunetarako.

2. saria: musika-kate bat.

3. saria: ordenagailu pertsonal bat.

Helduen mailan:

1. saria: 200.000 pezeta eta oroigarria.

2. saria: 125.000 pezeta eta oroigarria.

3. saria: 75.000 pezeta eta oroigarria.

- Lanak aurkezteko epea martxoaren 29an amaitzen da. Eskuz edo helbide honetara bidaliz jasoko dira:

Lekaio kultur etxea

san Juan plaza z/g

20139 Urnieta (Gipuzkoa)

Informazio gehiago: 934 33 03 59 telefonora deituz.

Euskal Eskolaren Jaia Iruñean eta Gasteizen

Iruñean martxoaren 13an ospatuko da laugarren aldiz Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko jaia. Jai honekin alde batetik gurasoak animatu nahi dira euskal lerroaren aldeko apustua egin dezaten, eta bestetik, Euskal Eskola Publikoa indartsu dagoela erakutsi. Jaia Iruñeko Gaztelu enparantzan hasiko da goizeko 11:00etan kalerajira batekin. Eskola publiko guztiek hartuko dute parte eta hauekin batera gaiteroek, fanfarreak, Barañaingo erraldoiek, ttuntturroek, trikitalariek... Takonera lorategira zuzenduko dira. Han izango dira besteak beste Portland-San Antonio eta Osasunako jokalariek, Iñaki Perurena harrijasotzailea eta Jon Alonso idazlea.

Ondoren dantzariak, folk taldea, Barañaingo musika eskolako txistulariak izango dira eta gero herri bazkaria. Segidan Lasarteko trikitalaria, Joseba Lasa kantautorea eta dantzaldia. Egun osoan zehar puzgarriak, jolas txokoak, tren tuxu-txua... egonen dira.

Bezperan Iruñeko gaztetxean musika



kontzertua izanen da Nahi Ta Nahiez, Hemendik At eta Berpiztu taldeekin.

Gasteizen, berriz, martxoaren 14ean ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren VIII. Festa "Denon erantzuna" leloarekin. Arabako Denon Eskola, BIGE eta Gipuzkoako Baikara guraso elkarteak dira antolatzaileak. Egun osoan zehar ekintza ezberdinak egongo dira gune ezberdinetan.

Egitaraua:

Egun osoan zehar puzgarriak, ludote-

ka, joko, kutur eta kirol gunea, kirol-jokoak, xakea, herri kirol pentathloia...

Mendizorrotza kiroldegian

13:00ean Maixa eta Ixiar

18:00etan Arawuak eta Betagarri

Aparkalekuan

11:00etan Txan handia magoa

12:00etan Peter Robets mimoa

13:00etan Karaokea

13:30ean Azkona anaiak pailazoak

14:30etan Karaokea

16:00etan Txan handia magoa

16:30etan Azkona anaizak pailazoak

17:45ean Karaokea

Olabe pilotalekuan

11:00etan Kirol erakusketa: judo, gimnasia erritmikoa...

12:00etan Kultur erakusketa: korala, dantzak...

16:30ean Bertso jaiadia

17:15etan Antzerki ludiko-musikala

Ogeta pilotalekua

9:00etan Aerobic erakusketa

12:00etan Musika erakusketa

ARGITALPENAK

HAUR ETA GAZTE LITERATURAKO 12 LIBURU BERRI

Desclée de Brower Argitaletxea

Argitaletxe bizkaitar honek 12 liburu berri argitaratu ditu Ipotxak eta erraldoiak sailean. Orain arte 70 argitalpen inguru kaleratu ditu sail honetan. Oraingo 12 lan berri hauetatik bost euskaraz egindakoak dira, eta gainerakoak itzuliak. Adinari dagokionez, hiru taldetan banatu dituzte:

Zortzi urtetik gorakoentzat: Jon Suarezzen “Eta alkatea”, Enkarni Genuaren “Ku-ku-ku-ku aitonaren erlojua”, Julia Otxoaren “Mundua sagarrean” (Jon Suarezek itzulia), eta Txabi Arnalen “Rasa, veeka aritzen zen ardia” eta “Hogeita bost ipuin motz”.

Hamar urtetik gorako irakurleentzat: Antton Kazabonen “Izar baten gainean”, Thomas Brezinen “Hotel sorginduko oporrak” (Xabier Mendiguren Bereziartuk euskaratua) eta Jo Pestum “Pottokoa gainean trebeak” (Eduarne Azkuek euskaratua).

Beste lau liburuak hamalau urtetik gorakoentzat eta helduentzat dira: Seve Callejaren “Esklavo zorionsuen uhartea” (Mari Eli Ituarte euskaratua), Josep Gorriren “Kezka 51. ikasgelan” (Felipe Juaristik euskaratua) eta Philip Pullmanen “Erloju mekanikoa” (Eduarne Azkuek euskaratua).



TANTAK

20. zenbakia 1.998ko
abendua

EHUko Hezkuntza Aldiz-
karia

Tantak aldizkariaren azken aleak zortzi artikulua ezberdin biltzen ditu. Hauexek dira: Gizarte-hezkuntzako projektuen bideraketa eta garapena (Gloria Perez), Haurtzaroaren babesa eta derrigorrezko eskolatzea (Arantxa Uribe-Etxeberria, Idoai Fernandez eta Ana Eizagirre), Balioak ikastolan (II): proposamen praktikoa (Oskar Viguera eta Gemma Del Rio), Dinamizazio soziolinguistikoa: esparru berria Gizarte kultur animazioan (Iñaki Marko), Eskola eta hizkuntza normalizazioa. Alderatutako zenbait adibidez (Fito Rodriguez), Bigarren hizkuntza irakasteko eskolak egin dezakeena (Uri Ruiz), Unibertsitateko irakasle berrien integrazioa: laneko lehen urtea (Pello Aramendi) eta Hezkuntza sistema, HIESa eta honen ondorioen aurrean (Amando Vega).

ZOMORROAK, TTIKIEN ABENTURA BAT

Aizkorri Argitaletxea
112 orr.




“Zomorroak, ttikien abentura bat” filma arrakasta handia izaten ari da gure zinemetan eta kritikak onak jaso ditu. Aizkorri argitaletxea pantailatik liburura pasatzeaz arduratu da. Koloretako 112 orrialdetan ilustratu ditu inurri eta matxinsaltoen arteko gora istorioak.

JAKINGARRIAK

39. zenbakia

1.999ko urtarrila

Jakingarriak aldizkariaren azken zenbakiko gai monografi-koa “Afektibitatea Haur Hezkuntzan” izenekoa da. Maria Pardo, Vincenc Arnaiz eta Izaskun Madariagaren artikuluekin osatua dago gaia. Lehenengoaren artikulua “Afektibitatea eta Curriculum. Hiruki erabakigarria: osasuna, afektua eta eza-guera” izenburua darama. Vincenc Arnaizena “Norberaren irudia... ebaluagarria da? Gutxienekoen adierazleak haur hezkuntzaren bukaeran” izenekoa da. Eta Izaskun Madariagak “Haurren afektibitatea 0-3 eskoletan” idatzi du.



HEGAN BILDUMAKO LAU LIBURU BERRI

Josu Lartategi
1.999ko urtarrila

“Asteroidea”, “Tren eroa metroan”, “Misterioa pirinioetan” eta “Lamia” dira Aizkorri argitaletxeak Hegan bilduman kaleratu dituen lau liburu berriak. Josu Lartategik idatziak dira lauak. Bilduma honetako gainerakoak bezalaxe, hauek ere euskara ikasten ari direnentzako dira. Istorioak maila zehatz baterako moldaturik daude (euskaltegiko eta DBHko A eredu maila ezberdinetarako) eta behealdean hiztegitxo lagungarri bat agertzen da. Liburuaren bukaeran irakurgai lantzeko ariketak daude.

Kontsulta txokoa

Getxotik idazten duen guraso bat naiz eta egoera bat planteatu gura dut:

Etxea garbitzen ari nintzela 12 urteko nire semearen gelan aldizkari pornografiko batzuk topatu nituen ezkutuan gordeta. Betidanik entzunizanditugu horrelako kasuak, baina niri orain egokitu zait eta egora honen aurrean aurkitzen naitzalarik, ez dakit zer egin. Zer egin behar dugu etxean seme-alaba nerabeen aldizkari pornografikoak aurkitzen baditugu? Beraiekin hitz egin behar al dut ala konturatu ez banintz bezala jarraitu? Hitz egin behar badut nola eta zer esateko? Irakasleekin hitz egin behar al dut? Eta beste gurasoekin? Nesken eta mutilen kasuak berdinak al dira gai honi dagokionez? Berdin tratatu behar al da gaia biek?

Adin horietako gazte gehienek izugarriko interesa agertzen dute pornografia dela eta. Egun oraindik ere, mutil askok autoestimulaziorako erabiltzen duten estimulu sexuala pornografia izaten dela esan dezakegu. Bestalde, esan beharra dago neskeengan gutxi ikusia eta gutxi

erabilia dela, ohikoa denez, balore sexualak eta sexu hezkuntzak lehengo eskematan irauten baitute.

Gure ustetan ez da txarra pornografia ikustea. Kaltegarriena zera da: gure gazteek gutxitan izaten dutela helduon iritzia errealitatea eta pornografiaren artean dauden diferentziaz hitz egitean. Gure irudiko, helduok ezin ekidin dezakegu gure seme-alabek une zehatz batean pornografia ikustea, beraz, bidea ez da pornografia ikusten dutenean zigortzea edota izutzea. Egokiena beraiekin mintzatzea da aldizkari horietan gertatzen denaz edota nagusiagoak direnean beraiekin batera film pornografiko bat ikusi eta aztertzea bertan gertatzen denaz eta gure bizitza sexualaren nolakotasunaz hitz eginez.

Badakigu hemen agertzen dugun planteamendua zaila egiten zaigula egungo gurasooi, baina gure seme-alabak ideia okerrekin gelditu daitezke kontraste-rik ez baldin badute.

Hala eta guztiz ere, pornografia erabiltzeko gogoia edo grina poliki-poliki desagertuz doa, eta dugun esperientziaren arabera behintzat adieraz dezakegu, badakitela une batean bertan gertatzen dena eta errealitatea desberdintzen. Berririo diogu, ordea, hori helduon lana dela!

Gasteizko guraso bat naiz eta kezka bat azalerazi nahi dut:

7 urteko alaba daukat. Orain arte eskolan ez zuten soinketarik egiten, baina orain hasi dira. Soinketaren ondoren dutxatu egiten dira, neska-mutilak elkarrekin. Lehengo egun batean, nire alabak bainujantzia jantzita eramango zuela esan zidan, gero dutxatu egin behar zutelako.

Orain arte etxean ez du inolako erreparorik eduki, bai aita eta amarekin dutxatu izan da.

Zentzurik ba al du horrek? Adinak zerikusirik ba al du? Mutilekin dutxatzeak ala orokorrean denen aurrean biluzteak bultzatuko ote zuen horretara?

Biluztasunaren gaia eskoletan istilutsua den gaia da, familia desberdinak daudelako eta familia bakoitzak balore desberdinak dituelako sexualitatearen inguruan. Guraso honek planteatu digun kezka guraso askok planteatzen dutena da. Garapenari kasu egiten badiogu, konturatzen gara zazpi urterekin oraindik neskatoek eta mutikoez ez luketela lotsarik sentitu beharko bestean aurrean biluzik egoterakoan. Lotsa eta intimitatea geroago sortzen diren bizipenak dira.

Gure ustetan oso polita da mutikoez eta neskatoez adin hauetan biluzik dutxatu ahal izatea. Alde batetik gorputza eta biluztasuna naturaltasunez bizi izaten dutelako eta bestetik, beren arteko harremanak ere normalizatu egiten dituztelako, desberdintasunak sakon eza-gutuz eta onartzuz. Nik, zure lekuan banengo, eskolan planteatuko nuke gaia, ea beste gurasoek eta irakasleek zer dioten honen inguruan eta agian gai hau naturaltasun handiagoarekin tratatzea lortuko duzue. Kontuan hartu behar duzue, hala ere, haur guztiek ez dutela zuen etxean jasotako askatasuna gorputza erakusteko eta biluzik egoteko. Haurtzaroan dagoeneko lotsa agertzen dute eta jokaera hau ere une batean errespetatu egin beharko genuke. Hala eta guztiz ere, adin hauetako gaztetxoak berehala askatzen dira eta polita litzateke helburu hau betetzea.



Amaia VAZQUEZ
Psikologo klinikoa eta sexu-hezitzailea

Idazkera harmonikoak ahalbidetzen



Iruñe IBARRA
Psikologoa eta grafologoa

Idazkera eta grafiaren gaiari jarraituz, "Idazkera harmonikoak ahalbidetzen" gaiaz arituko gara hurrengo aleetan. Zarauzko PATean irakasleriari emandako ikastaroaren zati bat eskaintzen dizuet jarraian.

Zertarako idazkera harmonikoak?

1. Aurrea hartzeko lana eginez: Idazkerak gure nortasuna azaltzen duela jakina da eta hasierako grafologoei utopikoa irudituko zitzaien arren, gaur egun badakigu idazkerako ezaugarri harmonikoak lantzeak gure barruan positiboki eragiten duela. Eskolatzearen lehen garaian idazten irakasten denez, logikoa irakasten diren letra-forma, propor-

tzio, loturak... ahalik eta positiboan izatea da, egiten den guztiaren zergatiak azaltzearekin batera. Adibideak:

a) Idazkera antolatu eta txukun batek ideia ordenatuak erakusten dituela jakinik, idazkera ordenatu bat irakatsi eta lantzeak buru ordenatu bat ahalbidetu dezake.

b) "i"ren puntuak eta "t" letraren makilak bere tokian jartzea arreta gaitasun onarekin elkartzen da. Noizean behin jartzea ordea ahanztura eta dispersioaren isla da. Testuinguru grafikoan ezaugarri txiki hauek jartzeak arreta areagotu dezake.

c) Lerroak horizontal mantentzeak erantzukizuna, autokontrola eta gertaeretikiko ikuspegi errealista erakusten du. Eskolatzearen hasieratik horizontaltasunaren helburua lortuz gero (beherantz edo gorabeherak doazen lerroak landuz), aipatutako gaitasunak ahalbidetuko ditugu.

2. Idazkera "txarra" duten ikasleei argibide egoki eta zehatzak eman eta soluzio-bidean jarri konturatu gabe egin ahal diren hanka-sartzeak ekiditeko: Irakasle eta guraso askori entzun diet ikasleen idazkeraz kezkatuta daudela, baina ez dakitela hauei zein argibide eman. Gainera, ez dute jakiten aholkuak zenbateraino diren gaur egungoak eta komenigarriak.

3. Eguneroko komunikazio tresna argia eta gustukoa izan dezagun, bai ikasle eta bai irakasleok: Ordezagailuen garaietan gaudela ezin dugu ukatu, baina idazkera oraindik eskoletan oinarritzko eguneroko tresna izanik, hobe

guztiok idazkera Ulerterrazak, Antolatuak, Garbiak, Proporzionatuak, Aurre-rakoiak... "norbera urguilutsu sentitzeko bestekoak" baditugu, hots, hobe idazkera Harmonikoen artean bagabiltza.

Idazkera harmonikoak

Idazkera harmonikoak zein diren galdetzen egongo zarete beharbada. Grafologiaren ikuspuntutik idazkera harmonikoak izan arren, gerta daiteke jendearentzako eta hiztegi popularrean idazkera "onak" ez izatea. Eta alderantziz ere bai: jendearentzat idazkera "onak" direnak batzuetan ez dira harmonikoak izaten.

Grafologikoki "idazkera onak", "txarren" antzera ez dira existitzen, Crépiaux-Jamin frantziar grafologo aitzindariak esandakoa kontuan hartzen badugu. 1930. urtean idatzi zuen "Abc de la Graphologie" liburuan, Grafologiaren lehen hamabost printzipioak eman zituen, hirugarrena ondokoa izanik:

"Idazkerak euren ezaugarri grafikoengatik definitzen dira (handiak, zurrinak, gorakorrak...) eta ez bere ezaugarri psikologikoengatik (tentelak, beldurtiak, inbidiatsuak, txarrak...). Idazkera ezaugarri psikologikoengatik definitzea, behaketa intuizioez ordezkatzeko izango litzateke, atzean doana lehenengo tokian jartzea".

Idazkera harmonikoez hitz egin dezakegu Grafologian. Armónica, Harmonieuse, Graceful, Harmonious, Harmonische Schrift... deitzen zaie idazkerak, Crépiaux-Jamin-en ustez, elementu guztiaren arteko oreka erakusten dute eta gehiagotasun orokorraren zeinurik naba-

riena izaten da.

Harmoniko izenak espezie desberdinak biltzen ditu (Erritmikoa, Txukuna...) bere barnean, hau da, idazkera-ezaugarri batzuen bateratasuna da. Idazkera hauek grazia, zehaztasuna eta proportzionaltasun erritmiko-koherentea edukitzen dute.

Interpretazioari dagokionez, idazkeraren harmonia hau karakterrenarekin batera joaten da, hau da, karakter edo aiurri harmoniko eta orekatuaren isla izaten dira. Aditasuna eta xumetasuna, ordena eta argitasuna, grazia eta bereizpena, pentsamendu aurrerakoia, jendetasuna, burmuin landua, hunkiberatasuna, autokontrola, epai inpartzialak, erabakikortasuna... erakusten dituzte, **soilik interpretazio positiboak azalerazten dira idazkera mota hauegatik.**

Eman diezaiegun haurrei honelako idazkerak edukitzeko aukera!

Idazkera harmonikoak ahalbidetzeko orduan kontuan hartu beharrekoak

Beti ere nolabaiteko malgutasunez erabili behar dira ondoren aipatzen ditudan neurri eta gomendio hauek, haurren indibidualtasuna eta gustuak nolabait errespetatuz, aukerak eskainiz eta inolaz ere inposatu gabe.


Jarraian aipatuko ditudan aholkuak estandarrak eta harmonikoenak badira ere, oso gutxitan elkartzen dira guztiak idazkera batean eta pertsona helduetan sarriagotan aurkitzen dira.

Norbaitek esan zuen perfekzioa ez dela gizakion birtute bat eta gogoratu, perfekzio eza, irregularitasuna, pertsonoi dagokigun ezaugarria dela. Gogoratu gainera, idazkeran ohikoagoak eta gehienetan positiboagoak direla irregularitasunak gehiegizko erregularitasunak baino. Azken hauek arazo ugari gorde ditzaketek euren barruan.


A. Forma

Herrialde desberdinetan alfabeto edo letra-eredu eta idazkera-aholku bereziak eman izan dira urtez urte. Begiratu ondokoak: Ipar Ameriketako, Errusian, Mexikon...


Ipar Amerika



Errusia



Mexiko



Zein alfabeto mota irakasten da Euskal Herrian eta zelako balioak transmititu nahi ditugu honen bitartez? Nik ikusi dudanaren arabera, ez dago eredu bateratu bat eta askotan irakasleak eurak aritzen dira letra-ereduak sortzen.

Formaren genero honek estiloa, gus-tuak, gaitasunak, kultura maila, objektibotasuna, xumetasuna, originaltasuna, nabarmenkeriak, estiloa, moldatze maila, ziurtasun-eza, norbere burua estaltzeko era eta abar islatzen ditu.

Hona hemen letren formarekiko proposamen batzuk:


1. **Letra bakoitza ulergarri** egiten ikasi behar dute hurrek, "kukurutxu" batetik begiratu gero, letra bakoitza zein den jakin beharko genuketarik.

2. **Begia duten letrak mugimendu bakar batez** egitea komeni da, zatikatu gabe (idazkera zatikatua larriminen seinale izaten da orokorrean). Adibidez: *a, d, g, j*

3. Letra **xumeak** eta **erraz egiteko**ek ulergarritasuna, laburbiltzeko gaitasuna eta arintasuna ahalbidetzen dute.

4. **Obalu forma bertikalak** egitea aholkatzen da 5-7 urte bitarteko hurrekin. 7 urtetik aurrera pixkat **eskuineranzko forma** (makurdura) hartuko dute letrak.

Zergatik **obalu** formako letrak? Begiratu taula honetan egiten den konparaketa:



Pentsa letra-forma hauetako bakoitza sofan jarrita dagoen pertsona bat dela. Zein jarreratan egongo da bakoitza?

1. ?
2. ?
3. ?

3. Eroso, ez etzanda ezta ipurterre ere.

2. Tokirik bilatu ezندا, ipurterre.

1. Etzanda, zabal zabal

Idazkera oso borobilak eta angelutsuak ekidin egin behar dira. Letra oso borobilak alferkeria, konpromezu eza, egozentrismoa eta kritika ezaren ezaugarriak dira.

Letra angelutsuak (eta letren arteko lotura angelutsuak *alo*) egonezina-ren, frustrazioaren, oldarkortasunaren, krispazioaren, moldatze zailtasunaren... adierazle dira.

Idazkera erdiangelutsuak interpreta-zio positiboa eduki dezake: diziplina, erantzukizuna, arauak ondo betetzea...

Idazkera konkortua komenigarria den arren, angeluak ondo etortzen dira ondoko letretan: b, h, i, j, k, m, n, p, r, s, v, x, y, z.

b, h, i, j, k, m, n, p, r, s, v, x, y, z

Zer ahalbidetzen du idazkera obalatuak?

- Ekintzarako gogoia edo dinamismoa.
- Xamurtasuna.
- Lasaitasuna.
- Autoestimazio egokia.
- Egokitzapena.
- Irudimena.
- Besteenganako errespetua.

5. Grafologiaren ekarpenak kontuan hartuta **Alfabetoaren letren** aukera batzuk jartzen ditut jarraian.

Minuskulak

- "b" letra honela egiten bada ez egin bukletxo edo kiribila, honek larrimina erakusten baitu. *b*

- "c" letra zabalik, nahasketarik gabe. *c*

- Obalauak (a, o, d, g eta q letraren begiak) goian eta eskuinean itxi, bira bakarrean eta barnealdean korapilorik gabe. *a, o*

- "d" letraren kiribila begiarekiko kiribil proportzional batekin egin. *d*

Letra honetan kiribila irudimena-ren zeinu propioa da. Kiribilik gabe egiteak pertsona arrazionalagoa egiten du. *d*

Beste "d" mota onuragarri batzuk:

da, de: Barne garapen maila altua lortu duten pertsonetan eta sortzaileetan ikusi da "d" mota hau. Asimilazio intelektuala, pertsona humanista, ikasi eta irakatsi nahi duenaren "d" da. Ez da haurretan ikusten den "d" mota baina saia daiteke ez oso txikiakin.

d, d:

- "e" letra geldiuenerik gabe egin

e (geldiuneak *e* blokeatze intelektuala edota zerbait esan aurretik gehiegi hausnartu eta errealtatea faltsutzeko joera erakusten du).

- "f" letra proportzionala egin. *f*

Beste "f" mota onuragarri batzuk:

f: Pertsona artistiko eta sortzaileetan ikusten da.

f: Ekintza praktikoa, ekoizpenduna eta independentea.

f: Irudimen sortzailea eta ekintza praktikoa-independentea.

- "g" letra hurrengo letrarekin elkar-tu, oin okerra eta begiarekiko propor-tzionala duelarik. Sexualitatea positi-boki bizi denaren seinale da. *ga, go*

Beste "g" letra onuragarri bat:

ga: Helize formako "g" letra. "g" letra kaligrafikoaren garapena da eta adimen maila altua, jentiltasuna, begikotasun eta autonomia maila altua islatzen ditu.

- "h": Kiribilarekin edo kiribilik gabe. *h, h*

- "i"ren eta "j"ren puntuak zentratuta jarri, ez oso goian eta ez oso behean. Pun-tua puntu egin, ez borobil. Arreta egokia eta puntualitatea islatzen du. *i, j*

Hitzaren lehenengo letra denean (adibidez, *ikus*) antenarik ez egite-ak autonomia gehiago erakusten du.

Ekidin: *ikun*

- "k" letraren bi zatiak elkar ukitzen egon behar dute, ulergarritasuna ahalbi-detzeaz gainera, erabakiak ezin hartzea eta larrimina uxatzen ditu. *k, k*

- "l" letrak kiribila eroateak irudimena erakusten du. Kiribilik gabea ez da txar-ragoa, arrazionalagoa baizik. *l, l*

- "m" eta "n" letrak ez irakatsi hiru eta bi arkuperekin (*m, m*), nahiko da "m"rentzako bi arkupe eta "n"aren-tzako bakarra (*m, n*). Soberan dagoen arkupea letrak elkartzeko ira-kasten da eta hau lortzeko beste arike-ta batzuk egin daitezke (txirikordak adibidez: *seemee*).

Irakatsi letra askatuak *m* eta ez inhibizioz betetakoak. *m* Irudimena ito eta egonezina bultzatzen dute (kaligrafiazko koadernoetan agertzen dira).

Beste "m" eta "n" onuragarri batzuk:



5 : Asimilazio intelektualera eratu dezake.

- "t" letraren makila horizontala bertikalaren bi herenetan kokatu . Ez dadila izan oso laburra eta ez oso luzea. Makila bertikala kiribilik gabe egin, gehiegizko sentikortasuna erakusten baitu.

Beste "t" letra onuragarri bat:

: Ahaleginak edo borondatea bikoiztea erakusten du.

Ekidin: ekimen eza zalantzak

- "u": Nahi bezala, baina oin oker edo kurboarekin.

- "v" letra angeluan edo kurban egin daiteke ("r" letra tipografikoa egiten bada "v" letra oin okerrarekin egiteak ulergarritasuna ahalbidetzen du).

- "w" eta "y" nahi bezala egin, baina nik neuk jarraian egiten irakasten diet hurrei.

- "z" letra zangoarekin edo zangorik gabe, nahi bezala. Zangoak jentiltasuna erakusten duela ikusi izan da.

- Letren hasiera luzeak ekidin, denboran zehar mantentzen direlako independentzia eragotziz eta ulergarritasuna oztopatuz (kaligrafiako koadernoetan azaltzen dira honelakoak).

- Letren azkenak ez moztu eta ez gehiegi luzatu . Azken hauek pertsonaren besoak bezalakoak dira, komunikatzeko era erakusten dute. Azken hauek gehiegi mozteak inhibizioak erakusten ditu eta gehiegi luzatzeak -besteen espazioaren inbasioa.

Maiuskulak

- Kiribilak eta alferrikako mugimenduak ekidin, zenbat eta sinpleagoak egin hobeto. Kiribilek apaindura, goxotasuna eta diplomazia erakuts dezakete, baina baita dispertsioa ere.

- Nik neuk maiuskula tipografikoa aholkatzen ditut, norberak bere gustuetara egokitu eta forma pixkat eman da, nahi izanez gero.

- Hitzaren barruan, minuskulen artean maiuskulak tartekatzeak (batez ere "R" letra denean) errealitatea faltsutu edo desitxuratzearen kutsua hartzen

du eta minuskuletara jotzea gomendatzen da.

- Letra guztiak maiuskuletan idaztea ekidin, nekagarria gertatzeaz gainera, nerbio-sistema ahuldu eta larrimina sortzen baitu. (Idazten ikasten dabil-tzan haurren maiuskulak ez dira hone-la interpretatzen).

- "M", "N", "H" maiuskulak tipografikoa egiten badira, hobe mutur biak parean badaude. Lehenengoa pixkat altuago egoteak autoestimua ona erakusten du , altuegia jartzeak urguilua eta lehenengoa bigarrena baino baxuago jartzeak gutxiagotasun sentimenduak erakuts ditzake (sinadura ezabatuta badago, letrak oso txikiak badira...).



Gainera,

M, U... Oro har letra estuek inhibizioa eta ziurtasun pertsonal eza erakusten dute.

M, U... Letra zabalak norbere buruarengan konfidantza eta zabalkundea erakusten dute.

Ingelesez hitz egiten den herrialdeetan "I" maiuskula, "Nia"ren adierazgarri zuzena denez, neurri eta tinkotasun sendoarekin egitea onuragarritzat hartzen da. Beraz, hurrekin ingelesez idazten bazabiltzate, "I" letraren azalpena eman eta dardara eta beldurrik gabe egin dezatela esan (hasiera batean norbere buruarekin praktikatzea ondo etortzen da).

Euskaraz ez da azterketarik egin, baina behar bada "Ni" hitza tinkotasunez idaztea komeniko litzateke (behintzat "Zu" hitzaren tinkotasun berdinarekin).

* Oharra: proposatzen ditudan letrak harmonikoenak iruditzen zaizkidan arren, beste letra harmoniko batzuk ere badaude.

"m" eta "n" letra kaligrafiako garapena dira. Umeetan ez dira ikusten askotan, baina 9-10 urtetik aurrera irakatsi ahal zaie. Jakinmina, esperientzia berriei irekita egotea, naturaltasuna, egokitzapen erraza... erakusten dute.

- "p" aurrerakorra egitea aholkatzen da, letra altruistagoa eta progresibagoa delako. Irudimen sortzailea ere erakusten du.

- "q" letra pintzan egin, irudimen sortzailea, sintesi gaitasuna, altruismoa... erakusten baititu.

Ez da komeni marra horizontalarekin egitea, norbere buruari min egitea, autonomia eza edo karakter inhibitua erakusten du eta.

- "r" letra bi angeluekin egin:

Borondatea erakusten du (ekidin, borondate ezaren seinalea da eta).

Beste "r" letra onuragarri bat:

: Buru bizkortasuna eta askatasuna islatzen ditu.

- "s" letra angeluekin egin: borondatearen seinale da. Angelurik gabeko formak borondate ezaren testuinguruetan ikusten dira.

Beste "s" letra onuragarri bat:

Gorputza eta bitartekariak musikan

Ana ETXEBERRIA

Musika irakaslea Burlatako Askatasuna institutuan



Musika komunikatzeko beste tresna bat dugu, adierazteko beste mintzaira mota bat. Besteak beste musika arte bat da. Zertarako erabiltzen dugu artea? Begira zer dioen B. Suchonulski-k -“Arteari esker jendeak bere mundu propioak sor ditzake forma eta kolorez, doinu eta hitzez, gertakari eta arazoez, esperientzia eta atxikipenez, sentiberatasun pertsonal eta sozialez”. Ildo berdinetik jarraituz eta musikara gehiago hurbilduz C. D. Fregtman-ek honela dio “Egoera emozionalen sortzaile eta

bideratzaile gisa, musika-gertakariaren bideari hasiera ematea guri dagokiguke” (irakasleoi). Biak ari dira adierazteari buruz. Musikariok adierazteko gure ahotsa edo beste musika tresnaren bat erabiltzen dugu. Hemen, artikulu honetako nire kezkarik nagusiena. Zein da musika tresna horren motorra?

Artikulu honetan bi puntu azpimarratu nahi nituzke:

- Gorputzaren garrantzia.
- Bitartekariak.

Gorputzaren garrantzia

Musikarion abiapuntua gure gorputza da eta ez guregandik at dagoen musika tresna. Musika tresna horren

benetako motorra gure gorputza da. Azken urte hauek arte, kontserbatorioetan musika tresna jotzeko teknikak oso ongi irakatsi dizkigute, baina oso gutxitan hartu da kontuan musika tresna horren benetako motorra, hau da, gure gorputza. Musika tresna bat hartzerakoan, justu-justu musika tresna hori jotzeko behar ditugun gure gorputzeko atalak nola jarri behar ditugun azaltzen digute eta beranduxeago teknika. Ez dut ezer teknikaren aurka, alderantziz, hori ere beharrezkoa baita. Teknika musika tresna horretan gure adierazkortasuna errazteko baliabide bat da, baina baliabide honi askotan garrantzi gehiegi edo lehentasuna eman zaio gizabakoaren sormenaren bideari leku



“Musika tresna bat hartzerakoan berau gorputzaren luzapen bat bezala senti eta bizitu behar dugu eta ez gugandik at dagoen tresna bat bezala”

handi bat kenduz edo atean itxiz. Sormenari atean ixtean barnean duguna kanporatzeko dugun bideari ixten dizkiogu atean, askotan besteek egindako musiken kopiazaile hutsa bihurtuz. **Sormenak gure barnean duguna kanporatzeko bide ematen digu.**

Honen guztiaren bidez, gorputzaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke, hau da, gure gorputzaren egoera fisikoaz, arnasketaren egoeraz, ahotsaren egoeraz, gure barneko sentsazioen egoeraz... kontziente eginaraztea litzateke nire helbururik nagusia, **gure gorputza baitugu sentitu eta adierazteko tresna nagusia.** Gure gorputzak mugiarazten du musika tresna, berak sortarazten dio soinua; beraz, **musika tresna bat hartzerakoan berau gorputzaren luzapen bezala sentitu eta bizitu behar dugu** eta ez gugandik at dagoen tresna bat bezala. Musika tresna komunikatzeko erabil genezakeen bitartekaria da, gure barneko mundua kanpokoarekin komunikatzeko balio digun tresna. Begira bestela gaur egungo edozein musika talderi.

Musika adierazteaz gain, musikako irakasleonek beste helburu nagusienetarikoa bat edozein musikarenganako irekitasun kritikoa sortaraziz, aditu, sentitu eta biziaraztea da. Musika ez dugu entzumenarekin soilik entzuten, gorputz osoarekin baizik, entzuteaz gain, sentitu eta bizi egiten baitugu. Beraz, musika entzuteko ere gorputza esnai badugu, ziur musika askoz ere era irekiagoan entzun, aditu edo hauteman dezakegula.

Beraz, gorputzak musika arloan bi funtzio nagusi betetzen ditu: alde batetik hartu, entzun, aditu, hauteman, sentitu... eta bestetik sortu, egin, birproduzitu... Horretarako, gure gorputza zenbat eta esnaia egoan, orduan eta bizipen maila handiagoa izango du, inplikazio handiagoa, ulermen maila handiagoa. Musikak guregan duen eraginaz kontzienteagoak izango ginateke, edozein musika motarenganako askoz ere kri-

tikoagoak izango ginateke, berauentzako atean irekiagoak izango genituzke... Hauek guztiak ez al dira bada musika hezkuntzaren helburuak?

Gorputza esaterakoan gauza bat azpimarratu nahiko nuke. Gorputza, besteen artean, gure barneko indar batzuk mugiarazten dutela. Jaiotzetik orain arte gure bizitzan izan ditugun esperientzia guztien informazioa gure baitan gordetarik dago. Informazio horren arabera, gero, zein egoeraren aurrean era batera edo bestera jokatzeko dugu, gure barne sentsazio horiek esaten digute zer egin, berauek gidatzen gaituzte. Beraz, **gorputzaz hitz egiterakoan hau mugiarazten duten barne indar guztiak kontuan hartu behar genituzke:** emozioen mundua, sentimenduena, sentsazioena, esperientzia...

Zenbait irakasleori gorputz adierazpenak halako errespetua ematen digu, geurok ere ez baitugu arlo hori oso edo ezer landua. Orduan nola lan genezake geurok oso barneraturik, menperaturik ez dugun adierazpen mota hau?

Bitartekariak

Gure lan tresnatzat hainbat bitartekari hartzen baditugu, horrek asko erraz diezaguke gure lana. Baina zer da bitartekari bat? Gure helburuak lortzeko musikarekin zerikusia duen edo ez duen edozein objektu edo tresna bitartekari bat izan daiteke, zeinak zerbait adierazteko balio beharko digun.

Bitartekarien ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Musika ez bezala, ikusi eta uki daitekeen **gauza konkretu bat da.**
- Besteek zerbait **komunikatzeko bide ematen digu.**
- Gure **beharretara egokitzen da.**
- **Ikasleari egin behar duen lana errazten dio.**

Musika Hezkuntzan irudimen pixka batekin milaka bitartekari erabil genituzake. Txikienekin oso beharrezkoa ikusten dut. Beraiek musika oso gertutik bizi dute edo bizi dezakete, baina aldi berean oso abstraktua gertatzen

zaie. Zer da altuera, tinbrea, iraupena haur txiki batentzat? Musika Hezkuntzan kontzeptu horien ulermenerako bitartekariak laguntza handia eskaintzen digute. Hori bai, lehendabizi beraien gorputzarekin sentituz eta bizituz eta gero bitartekarien bidez adieraziz. Haur handiagoekin besteen artean bitartekari horrek inkontzienteki edo ustekabean gure gorputzari adierazten lagun diezaioke.

Nire esperientzian oinarriturik hainbat bitartekariaren erabileraren adibide batzuk eman nahi nituzke. Lehenak Amezketako Zumadi Eskolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eginak dira eta azkenak Burlatako Askatasuna Institutuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Hainbat esperientzia

Ondorengo dinamiketan zerikusirik ez duten hainbat objektu bitartekari erabiliko ditugu:

- Lehenengoan *globoak* isiltasuna eta ozentasuna bereizteko (HH).

- Bigarrean *edozein objektu luze edo labur* soinuaren iraupena adierazteko (HH).

- Hirugarrean *globoak edo zapiak* musikaren adierazkortasunera hurbiltzeko (LH).

- Laugarrean *pilotak* entzuten duten musika hori nola bizi duten transmititzeko beste bati (DBH).

- Bosgarrean *aldizkariak* musika horrek sortarazten dietena irudi eta hitzen bidez adierazteko (DBH). Hau hurrengo alean azalduko dut.

Isiltasuna eta ozentasuna

Lehenengo esperientzia Haur Hezkuntzako hiru urteko haurrekin egina da. Bitartekari bezala globoak eta musika erabiliz haurren entzumen maila eta arreta esnatzea da. Izan ere, hasiera batean hori baino gehiago ezin baituzu eskatu. Horretarako gela bat globoz betetzen dugu eta gure kontsigna sinplea luzatzen diegu haurrei - *Musika hastean globo guztiak goian, airean ibili behar dute eta musika isiltzen den bakoitzean globo guztiak lurtean egon*



behar dute. Lehenengo aldiz musika gelditzean hainbat haurrek globoekin jolasten jarraitzen dute, baina azkenerrako isiltasunean globo guztiak lurrean izatea lortzen da.

Globoaren ludikotasunarengatik oso gustuko dute ariketa hau. Musika irakasle bezala gure azken helburuetako bat litzateke bitartekari bezala musika soilik erabiliz musika eta isiltasunaren arteko egoeraz haurra kontziente eginaraztea. Adibidez, musika entzuten dugunean guztiok dantza-tzen dugu eta isiltzean guztiok estatua bihurtzen gara. Hemen beste eduki bat gehiago sartzen dugu: sormena. Zer izan naiteke ni orain eta nola irudika naiteke? Gorputz estatiokoaren espresioa sartzen dugu. Ariketa honi honelako aldaera asko sar geniezazkiok.

Soinu luzeak eta motzak

Hain haur txikiekin ludikotasunaren garrantzia azpimarratu nahi nuke, eta batez ere, gauza konkretuen erabilerara, hau da, uki eta ikus daitezkeen gauzena, baina hori bai, lehenik gorputzarekin bizitu ondoren. Adibidez, soinu luzea eta motzaren azalpena. Hori ongi ulertzeko, lehenik beraiek bizitu beharko dute - *Soinu luzeak entzutean txorien gisa hegala zabaldurik gelan zehar hegan ibiliko gara eta soinu motzak entzuterakoan goseturik lurtean saltoak eginez garia jango dugu.* Soinu

luzeak oinez egiten dituzten lerro luzeak dira eta soinu motzak saltoka egiten dituzten lerro motzak. Lerro horiek inork ez ditugu ikusten, baina bai sentitzen eta bizitzen. Mugimenduaren bidez adierazten dutena aho-tsez ere egiten erakutsi behar diegu - *Ea nork egiten duen soinurik luzeena, eta motzena...* - Hori guztia barneratzen dutenean, kontzeptu horiek adierazteko balio diguten edozein bitartekariarekin lanean has gitezke. Beraz, bitartekari bezala edozein objektu motz eta luze hartuko ditugu. Lehenik, objektu luzeen eta motzen sailkapena egingen dugu. Gero, soinu luze eta motzen irakurketa bat egitearren, irakasleak objektuak zerrendatuko ditu eta ikasleak ahotsaren bidez hori adierazten edo irakurtzen saiatuko dira. Azkenik, diktaketa gisara entzuten ditugun soinu arabera ikasleek objektuak zerrendatuko dituzte - *Nolako zen lehenik entzun dugun soinua? Luzea, eta gero? Motza. Ea bada, objektu luzea edo motza jarraian jarriko ditugu.* Talde bezala hori ongi menperaturik ikusten dugunean, haur bakoitzak bere diktaketa egin dezan txotx edo makila luze eta motzak banatuko dizkiegu eta entzundakoaren arabera haur bakoitzak bere diktaketa erritmikoa egingen du. Orain arteko guztia barneraturik baldin badute, aurregrafia idatzira pasatuz, hau da, txotx edo makilak erabili beharrean orri edo arbelean egini-



ko marra luze eta motzen bidez adieraztea litzateke. Noski, azken pausoa iraupen zehatzak landuz idazketa eta irakurketa tradizionalera pasatzea litzateke. Baina horretarako, beste guztia ongi barneratu arte ez dago presarik.

Globoak eta zapiak musika dantzatzuz

Ondorengo ariketa hau ere edozein adinekoekin egin daiteke baina nik Lehen Hezkuntzakoekin egin nuen. Oraingo honetan elementu bitartekari bezala zapi handiak, eta nahi izanez gero globoak, erabiliko ditugu. Ariketa honetako kontsigna oso sinplea da: *Musika jarraituz saia zaitzte zapiak edo globoak dantzan jartzen*. Ariketa honek aldaera asko dauzka: bakarka, bikoteka, talde txikitik, talde handitan, zapiekin soilik, globoekin soilik, biek aldian berean, musika lasaia jarritz, martxosoa, edo biak tartekatuz... Era askotara egin daiteke. Azpimarratu nahiko nuke batez ere musika lasaietarako globoen erabilera oso baliagarria dela sortzen duen giro lasai eta harmoniotsuagatik. Ariketan zehar kontsigna asko sartuz joan gintezke, adibidez globoekin; *-Orain globoak buruarekin mugiaraziko ditugu, gero sorbaldarekin, triparekin, belaunekin...* - eta horrela nahi gabe, konturatu gabe, musika jarraituz gorputz guztia ari dira mugitzen, eta ahal den neurrian adierazkortasuna sartuz joango gara. Beraien ustez globoak mugiarazten dituzte, baina benetan mugitzen ari dena beraien gorputza da. Musika gorputzaren bidez adierazten hasteko horrelako objektu bitartekariak oso lagungarri suertatzen dira.

Pilotak sentituz

Lehenengoaren ildo berdinetik jarraituz, baina zertxobait kontzienteago, Burlatako Institutuko 3. DBHko ikasleekin egindako ariketa bat azalduko dut. Orain erabiliko ditugun bitartekariak pilotak dira. Ariketa hau bikoteka egingen dugu. Egiteko egoerarik erosoena lurrean etzanda da, baina hori


ezinezkoa bada, aukietan eserita eta gorputza mahai gainean botata egingen dugu. Kontsigna *-Pilota horien bidez entzuten duzuen musika ondoan duzuen bikoteari transmititzen saiatu behar duzue-*. Bi saio jarraian egiten ditugu emaileak eta hartzaileak alda daitezten eta aldiko bi musika oso ezberdinak jarritz. Lehenengo, nahita, talde horretan gustuko duten martxa duen musika jartzen diet, eta gero musika lasaia, New Age edo klasiko lasairen bat, Guridiren Amorosa... Nire harridurarako, nahiz eta lehenengo musika beraien gustukoa izan, horrelako ariketarako orokorrean nahiago dituzte musika lasaiak, gusturago sentitzen omen dira bai hartzaile edo emaile gisa, nahiz eta batzuk lehenengo musikarekin oso gustura sentitu, beraiek zioten bezala aurrean zutenarekin asaskatzeko balio izan baitzien.

Honek, orain arteko beste ariketa guztiek baino inplikazio maila handiago eskatzen du. Globoekin eta zapiekin egindako dinamika, bakarka, binaka edo taldean egin, jolas zentzu gehiago du. Orain, aldiz, jolas antzera ere senti daiteke, baina hartzaile bat dut aurrean, zeini nik musika hori nola sentitzen dudari transmititu behar diodan eta hori gutxi balitz, bera ni entzuten eta sentitzen erabat geldirik dago, erabat kontzentratuak *-Hau lotsa!*




Kasu honetan, pilotaren funtzioa bikoterako zuzeneko kontaktu hori zertxobait babestu edo disimulatzea litzateke eta gorputza mugiarazteko arrazoiak pilota izatea. **Horrelako dinamikan oso garrantzitsua da amaieran momentu horretan beraiek bizi izan duten egoera horretaz mintzatzea gogoeta txiki bat egiteko.**

Gogoeta hauek eta dinamika iraun duen bitartean behatu ditugun jarrairak irakasleontzat oso informazio iturri garrantzitsuak dira, taldearen irakurketa zehatz bat egiten laguntzen baitigu. Aurrerantzean nondik eta nola jarraitu behar dugun erakusten digu.

ELKARLANEAN-eko xaguzarrak lau liburu eder eskaintzen dizkigu:



ELKARLANEAN



Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakurle gaztetxoentzat aproposak